

# euskal kulturaren zapalketa 1956~1981

*Txillardegi*

ELKAR — *æk*

Argazkiak

Orrialdeak: 10-16-20-22-24

32-36-42-56-68-74

**Jorge Oteizaren eskulturak**

© ELKAR, S. A.  
Esterlines, 10 - Donostia

Depósito Legal: NA. 707-1984  
ISBN 84-7529-160-0

---

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

«Euskal Kulturak» azkeneko 25 urteotan jasan duen zapalkuntza aztertzen hasi baino lehenago, beharrezkoa bide da «Kultura» zer den eta zer ez den apur bat zedarritzea; eta, ondorio bidez, «euskal kultura» delakoa zer den eta zer ez den garbitzea.



## KULTURA ZER DEN. KULTURAREN BI IZARIAK

Kulturak, oro har —eta hitz hori zabaltasun osoan erabili nahi izanez gero— Izadia edo *Natura* (erd. Naturaleza, Nature) *ez den guztia* biltzen du.

*Naturak*, beraz, berezko Geografia eta jatorrizko ondasunak biltzen baditu: gizona bera gabe ere, haren aurretik alegia, jadanik *hor zeuden* mendiak, zelaiak, ibaiak, alimaleak, meatzeak, basoak, klima, eta abar; *Kulturak*, aitzitik, eta funtsean, *gizonarekin eta gizajendearen bidez* han ez zegoena, eta geroztik Naturarekiko dialektikan eta lanaren bidez, erantsi den guztia, horra hor Kulturaren partea: arrantza-teknikak, eman dezagun: bideak, kaiak, aideportuak, medikuntza osoa, etxegintza, tresneriak oro, legeak, artea, erlijioa, ohiturak, hizkuntza, eta abar.

*Naturak*, beraz, izari *bakar bat* baizik ez du: *fisikoa*, esan dezagun. *Kulturak*, alderantziz, alderdi *fisikoaz* gain (kultur-teknikez gain, gutxi gora-behera), alderdi *izpirituala* ere badu: artea, poesia, erlijioa, etab.

Hain zuzen ere, bigarren alderdi edo izari hau berebera duelako, «kultura» hitza aipatzen dugunean, *fisikoa ez den* kultur alderdia besterik ez bide dugu gogoan. Eta hau, «kultura» hitza bere adiera oso eta zaballean hartzen bada, ez da, izan, zuzena. Produzio-tekniken

maila oso puntu inportantea izan daiteke herri baten «kultura» zedarritzeko.

«Kulturak», hitz batez, bere adiera zabalean eta sentidu horretan, *bi izari ditu*. Ez bakar bat.

## *Kultura eta Teknologia*

Hala ere, eta gorago esan dugunarengatik, herri edo gizarte baten «Kultura» aipatzen denean, gutxitan hartzen da kontutan haren *Teknologia*. Baita etnologilari famatuek ere Kulturaren edukina eta mugak finkatzerakoan, alderdi *fisikoetatik at* dauden osagaiak bakarrik hartzeko joera hazkorra bide dute.

Tylor-ek, adibidez, «jakintzak, sinesteak, arteak, gizalegea, eta ohiturak» gogoratzen ditu; eta Kroeber-ek, estrukturalistekin eta sinbolistekin bateratsu, gizartearen *sinbolo-multzotzat* hartzen du Kultura: «Sinboloen bitartez lortutako eta besterenganatutako jokabideek eta jokabi derako eredu agiriek eta izkutuek osatzen dute Kultura».

Gauzaturik edo objetibaturik gelditzen den parteari «Tecnologia» deituz gero (tresnak, bideak, hiriak, etab.), ideien mailan gelditzen den parteari (arteak, literatura, legeak, etab.) «Kultura» dei diezaiokegu.

Kultura hitza, adiera hertsia honetan, *mundu-irizkera* da, *sinbolaketa*, *interpretazio berezia*. Basoen baliatzea, honetara edo hartara antola daiteke; heriotza honela edo hartara aurkez daiteke, denboran barrena gertatzen diren gauzak honetara edo hartara adieraz daitezke. Hauetan guztietan munduaren irizkera edo interpretazio bat dago. Joera jeneralaren arauera, guk irizkera edo sinbolaketa berezi horri deritzogu «Kultura» liburuska honetan.

Eta tekniken hazkundera dagokion alderdia adierazte-

kotan «Teknologia» hitza erabiliko dugu (erd. Cultura Material, Culture Matérielle)

### *Teknologia, Kultura eta Hizkuntza*

Eman dezagun, beraz, *Kulturaren* osagaien zerrenda bat. Berehala datoz gure oroimenera sail batzu: hizkuntza, erlijioa, legeak, instituzio mota guztiak, ohiturak, artea.

Eta eman dezagun, era berean, *Teknologiaren* osagaien zerrenda bat. Berehala ere: meatze teknikak, tresnagintza, hirigintza, bidegintza, arrantzari eta industriari dagozkien teknikak, medikuntza.

Lehenengo begiraldi batez, *Teknologia* delakoa gizar-tearen «azpi-egitura» materialtzat har bide daiteke (erd. infra-estructura, infrastructure); eta *Kultura* delakoa, berriz, «gain-egitura»tzat.

Teknologiak, gizarte osoaren garapide materiala neur-tzen du; baina, berez, ez du salatzen edo adierazten gi-zarte horren barruko antolaketaz ezer. Grafikoki esateko: aspirina gizarte batek erabiltzeak aurrerapen neurri bat eman dezake; baina aspirina ez da burgesa eta ez iraultzailea. Pinochet-ek aspirina erabil dezake, eta sandinistek ere bai. (Aspirinaren *erabilketa* noraino den herrikoia edo klase-hobari hutsa, beste arazo bat da, jakina).

Kultura, berriz, gain-estruktura den neurrian, klase-in-teresen adierazpena eta izkutabidea da. Legeak edo lite-ratura, esate baterako, eta ongi dakigunez, eskuindarrak izan daitezke, edo ezker-tarrak; klase-zanpaketaren geri-zatzaile gerta daitezke, edo-ta, alderantziz, klase zanpa-tuen iskilu. Instituzio bat nekez izan daiteke neutro eta markagabe.

Iraultza sozialistari iraultza *kulturala* dagokio, beraz;

eta hau projektu sozialistan ere ageri da. Baina iraultza sozialistari ez dagokio iraultza *teknologikorik*, sentidu horretan. Alegia, legeak eta literatura klase zapalduen alde jarri behar badira ere, aspirina eta Diesel-motorea «burges» eta «eskuindar» salatu beharrik ez dago. Teknologia ez da, berez, eskuindarra ez ezkertarra. Kultura bai alderdi askotatik.

Gaurko gizartean batez ere, *Teknologiak ez darama* klase-markarik. Kulturak bai.\*


— Non kokatzen da *Hizkuntza* erdibiketa horietan?

Eztabaida-iturri zaharra. Bai Marr-en garaian, Sobietar Batasunean orain dela mende erdi bat; bai Euskal Herrian orain dela hamar-hamabost urte.

*Hizkuntza Teknologia ez den* aldetik (alegia, aspirina eta Diesel-motorea dauden teknika-zerrenda berean inolaz ere sartzerik ez dagoenez gero), *Hizkuntza* sinbolaketa eta Semiotika osoaren erdua den aldetik, Kulturaren parte dirudi; eta gain-egituraren osagai.

Baina Teknologia bera, ongi begiratzuz gero, bai *sortua* izateko, bai belaunez belaun mendeetan barrena *gordea* izateko, gizonen arteko *harremana* behar du; eta harreman horren oinarrian, eta ezinbestezko tresna gisa, *Hizkuntza* dago. Giza-lanaren ekarpena da Teknologia, giza-ekintzaren fruitua. Baina giza-ekintza horren *lehenengo*

\*Nahiz *Teknologiaren aurrerapenean*, joera nabarmenak agertu. Petroleoa kontrolatzen duten indarrek, esate baterako, eguzkitikako energiaren ikerkuntza moteltzen dute; edo-ta, berebil elektrikoen zabalketa. Zentrale nuklearren hedaketa, era berean, uranioa kontrolatzen duten multinazionalen zerbitzutan egin da, eta ikerkuntza ez da neutrala izan. Alde honetatik, jakina, Teknologiaren ikerkuntzak (are gehiago Literaturak, edo hizkuntzak berak ere) klase-borrokaren marka darama oso nabarmena.



*baldintza, mintzaira da. Teknologiaren sorreran bertan Hizkuntza dago.*

Areago. Norberaren eskarmentuz bildutako jakinduria (garia, eman dezagun, noiz erein edo bildu behar den; edo sardinak noiz-non harrapatu ohi diren ugarienik; edo-ta burdina nola lantzen den) gero, *ondoko belaunekoei*, denboran barrena helarazteko, hizkuntza behar da. Hain zuzen ere, giza-kulturari datxekion izari pilakor hori (eza-guera metatu, pilatu, egiten da: belaun bakoitza aurrekoak ikasi duenaren *gainetik* abiatzen da) ezinezkoa da hizkuntza gabe. Zer esanik ez gaurko munduan, hizkuntza idatzia edozertarako erabiltzen delarik.

Hizkuntza, beraz, *Teknologiaren zimentarria* bera da. Materiala ez izanik ere, *Kulturaren baldintza* da batera. Bi mailetan dago: *baldintza* da, eta *adierazpidea* ere bai.

Gizajendea, horretara, Teknologia eta kulturak bereizten dute Primateengandik. Alegia, *Hizkuntzak* azken funtsean.

Primateek ezagutzen duten tresnagintza (adarren erabilketa, esate baterako), edo hizkuntza ez-artikulatua (seinale bati gauza bat dagokio), beste maila batetakoak dira. Mintzamena lortzeko adimena prest bide dago primate batzuren gan bederen, eta tresnak baliatzeko aukera ere bai. Baina aztertzaileak txinpantzeari edo gorilari hizkera bat *proposatu* arte, ez dute berek beren kabuz erabiltzen.

Giza hizkuntzaren ezaugarri nagusia *artikulaketa bikoitza* baldin bada, primateek ez dute hitz egiten; baina *sinbolatzeko* eta ideiak *kate* batez adieraztea baldin bada, primateek badute mintzamena (oinarritan bederen).

Badirudi, beraz, *mintzaira* izan dela gizakuntzaren katean pausurik inportanteena eta erabakiorra.

Hizkuntza, beraz, Gizakuntzaren, Kulturaren eta Teknologiaren erdi-erdian egonda, *gain-estruktura ez da*; eta klase-iraultzak ez du, berez, hizkuntza markatzen. Hizkuntza ez da, berez, «burgesa» eta ez «iraultzailea». Aspirina ez burgesa ez iraultzailea den bezala. Are gutxiago. Baina, hau bai, indar iraultzaileen kontra erabil daiteke; eta erabilia izan da.

## EUSKAL KULTURA ZER DEN

Edozein gizartetan, eta azaldu dugunaren arauera, Kulturaren gauzakuntzan Hizkuntza *gertabide*, *baldintza eta adierazpide* baldin bada, Hizkuntzaren inguruan bilatu beharko dira herrien arteko berezitasunak.

*Ez, jakina, Teknologiaren mailan.*

Teknologiari dagokionez, Hizkuntzak ez du muntarik: 1982 honetan Teknologia bera (edo bertsua) izan dezakete Tokyo-tarrek, New York-tarrek eta Mosku-tarrek. Eta aspirina gauza bera da tagalopez, ingelesez edo tamilaz mintzatzekotan: garrarkin azetil-salizilikoa, gaizki oroitzen ez banaiz.

*Gaurko* munduan, Teknologia bera ia-ia mundu gutira eta osoki zabaldu denez gero, Teknologiaren mailako «berezi-tasunik» ez dago, aspirinaren aldetik ezer «berezi-terik» ez dago. Nahiz orain dela 200 urte eman dezagun (are 100 urte ere) mundu guztian barrena Teknologia bera (edo bertsua) ezagutzen eta erabiltzen ez bazen ere. Teknologiaren mailako berezitasunak ahuldu egin dira gaur egun; eta Teknologia desberdinen arrastoa aurkitzekotan, Etnografi liburuetara jo behar da.

Era berean, mapa bat hartu, hesparru geografiko bat lapitzez marratu (edo harmada baten bitartez egiazko lurgainean!); eta eskualde artifizial horren barruan «kultur-



berezitasunak» bilatzen hastea erokeria da. Inperialismoak ezarritako muga-lerroen hesparruetan kultur-berezitasuna bilatzea, denbora galtzea baizik ez da. Afrikako edo Ameriketako kolonikuntzaren ondoko Estatuetan ageri da hau garbikienik.

Kultura bereziak, are Teknologia zahar eta bereziak ere, *herrien barruan* mamitu dira mendeetan barrena, mamitu diren heinean; eta geografi eskualde estataletan batasunik ez bestetasunik bilatzerik ez dago. Mayatar Kultura, adibidez, Erdialdeko Ameriketan, bera da Guatemalan eta Mexikon barrena; Ketxwatar kultura, Perun eta Bolibian barrena bera den bezala; edo-ta Kurdotarrena, bost erresumatan barrena bera eta bakarra den bezalaxe.

Estatuen arteko berezitasuna pasaporteia izan daiteke, edo mugako zaindarien kapeloaren kolorea, edo salgaiak batetik bestera errenteri-gasturik gabe ezin igarotzea. Herrien arteko berezitasunak, *Kultur mailakoak dira*; eta, beraz, maizenik, *Hizkuntzaren mailakoak*.

### *Kultur berezitasunak eta klase-arazoak*

Lehenago azaldu duguna kontutan harturik, herrien berezitasuna ez da guztiz Kulturaren mailan mamitzen. Alegia, Kulturak klase-marka *daraman heinean* ez da Herri-kultura, Klase-kultura baizik.

Azken funtsean, eta hein handi batez, gaurko gizartean «Kultura», are «Nazio-Kultura» deitu ohi denak, klase-gataskaren marka oso nabarmena daramanez gero, «Euskal Kultura» deitu ohi den horri buruz argi ibili behar da: parte batez, Hizkuntzari dagokion partean funtsean, «*euskal*» emaria bada ere, beste parte batez «*bur-*

ges» marka eskuindarra darama ezinbestean. Bere *fruitu berrienetan batez ere*. Klase-kutsu hori mendeetan barrena mamitu eta iritsi zaizkigun izaki kulturaletan ageri da; bai, eta areago noski, azken urteotan sortu direnetan.

Gure Foruetan, eman dezagun, edo gure literatura zaharrean, gauza ezin nabarmenagoa da euskal sorkari horietan datzan betekizun soziala (eskuindarra, eta kontserbadorea, noski).

Gizarte-funtzio edo betekizun horretan, legea sistemaren aldekoa ala aurkakoa ote den berehala ikus daiteke. Lurren «euskal jabegoaz» idatzi diren teoria chauvinistek, funtsik ez dute. Lur-jabego sistema berbera (edo oso antzekoa) aurkitzen baita munduan zehar. Baldintza bakarra, jakina, hau da: legea artzantzaz bizi diren *artzaien zerbitzutan* egotea. Hitz batez, mendialdean artzaiak jaun-eta-jabe izatea; eta ez urrutiko «señoritoak».



### *Hizkuntza, Kultura berezien ardatza*

Aipatutako mugen artean, beraz, Klaseen gaineratik gelditzen den *elementu bakarra, Hizkuntza da*. Hori delata, *Nazio-osagai bakarra* hizkuntza da; Estatuarena besterik izan badaiteke ere. Hizkuntz batasunik gabe Estatu bat eraiki daiteke, baina ez Nazio bat. *Estatua ez dago klaseetatik at, baina Hizkuntza bai*.

Hizkuntza ez da Kultura guztia. Baina:

1/*Teknologia*, gero eta osokiago, *bakarra* da munduan barrena; eta Teknologiaren mailan herri-berezitasunik ez lako.

2/*Kultura*, klase-eragina indartu ala, gero eta areago gertzen da *klase-interesen adierazpen eta berme gisa*. Noriala denez, herriaren *ezagugarria* Hizkuntza izanik ere,



*mamia* klase-interesetan nahasia agertzen da.

3/Herri-kulturaren osagai *berezi eta neutro* bakarra, klase-sorkaria ez delako hain zuzen, *Hizkuntza* da.

Euskara da, hitz batez, euskal kulturari agertzen zaigun izari irmo bakarra, gorago adierazi den neurrian; mendeetan barrena eta klase interesen gaintetik mamitua.

Mauss antropologilariaren ideia egin genezake geure: «garai modernoetan, nazioak ez bada ere, nazionalitateak bederen sortzen dituzte hizkuntzek».

Octavio Paz-en hitzak ere egin genitzake geure: «*la creencia en la existencia de literaturas nacionales es un tenaz prejuicio. Proviene de la aplicación abusiva a las letras de la idea de nación... Cada uno de nuestros países (hispano-americanos) pretende poseer una literatura propia... Pero si bien existen excelentes poetas y novelistas colombianos, nicaragüenses y venezolanos, no cabe hablar de literatura colombiana, nicaragüense o venezolana. Todas esas supuestas literaturas nacionales solo son comprensibles como partes de la literatura hispano-americana... La realidad fundamental de toda literatura es la lengua en que está escrita*» (Univ, Yale, 1976)

Baita Agirrebaltzategirenak ere (Sorokin gogorazten duelarik): «*Hemendik sortzen da hizkuntza eta kultura nazionalaren ideia, beronen jatorrizko esanahiari begiratzeko badiogu. Hizkuntzak eta kulturak ematen diote oinarri objektiboa nazionalitatea deritzan horri, eta batez ere hizkuntzak nazionalitatearen jabetasun subjektiboa sortzen du eta horri eutsi; elkarte «nazionalari» bere osotasuna eta baterakuntza mamitzeko mamia haiek ematen diote. Ostera, kultura eta hizkuntza desosatzen eta suntsitzen badira, nazionalitatea bera desosatu egiten da, eta*

*oinarririk gabe gelditzen. Horregatik, nazionalitatearen baiezkontza (eta batez ere Estatu independentearen berreraikuntza), derrigorrez, kultura eta hizkuntza herriak berriz ere bereganatzearekin batera doa.»*



## EUSKAL KULTURAREN ZANPAKETA

Euskal Kulturaren kontrako zapalketaz egiten dugun ikertzapen labur honetan, beraz, orain artean esan dugun horretatik garbi ondoriozta daiteke gure ustez «Euskal Kultura» hori zer den eta zer ez den. Eta, gaurko euskal gizarteari dagokionez, hauxe da: *euskara eta euskarazko ingurunea*.

Lan honetan, horregatik, *euskararen beraren* gorabeherak aztertuko ditugu: baita euskaraz mamitzen diren *kultur adarrenak* ere: euskal irakaskuntza (ikastola, euskal unibertsitatea), euskal literatura, prentsa eta irrati-telebista: euskara eta administrazioa; euskal kanta eta teatroa; etab.

Honenbestez, esan beharrik ere ez dago, nik uste, *edozein erdaratan* idatzitako literatura, abertzalea izanagatik ere, ez dela euskal literatura; erdal kultura honen edo haren atala baizik. «El Sentimiento trágico de la Vida» erdal izkribua da, «Literatura Española»ko atala; nahiz Unamuno bilbotarra izan. Laxalt-en obra, Nevada-ko ingelesezko obra da, ingeles literaturako atala funtsean; eta ez euskal literaturakoa.

Erdarazko Literatura abertzalea, onuragarri gerta daiteke Euskadi-ren askatasunerako borrokan; baina ez da euskal literatura. Literaturaren zertasuna eta mamia, *hizkuntzak* ematen ditu, ez gaiak.



Euskal Kulturaren zanpaketa, beraz, *euskararen eta euskaraz idatzitako edo mamitutako kultur adarren zanpaketa* baizik ez da.




Non dira, bada, Euskal Kulturaren mugak?

Eman dezagun argibide bat: *ulertu ezina izateagatik, erdal itzulpenik gabe*, bere horretan, Albacete-n, Grenoble-n edo Atenas-en *erabil ezin daitezkeen* kultur atalak oro, Euskal Kulturari dagozkio. Besteak ez.

Euskal pinturarik ez dago, beraz; baina bai Euskal Herriko pintura. Pintoreak dira euskaldunak; ez haien pintura. Berrero ere, Octavio Paz-en ideiak egiten ditugu geure.

Nazio-kulturaren muga *hizkuntza* da. Ez autoreen pasaporteak, edo nahi izkutua.





## 1956-1981 TARTEAN, HIRU ARO DESBERDIN

Azkeneko 25 urteotako epea osoki bizi izan dugunoi, eta Euskal Kulturari dagokionez, nabarmen agertzen zaizkigu urteon desberdintasunak.

Eta badirudi hiru giro desberdin berez daitezkeela; hirurak, noski, egoera eta aldakuntza politikoei hertsiki datxezkielarik:

1- 1956/1968: euskal mundura belaun berri bat sortzen da, eta hazkunde isilean abiatzen.



2- 1968/1975: borroka politikoa gogortu ala, euskal kulturaren sailean ere azkarketa bera ispilatzen da.

3- 1975/1981: sekulako goraldi labur baten ondoren, batera instituzio-bidea mamitzen hiru probintzian, eta laxaketa orokorra.

Funtsean, jakina, bi «tempo» desberdin izaten dira politikaren eta kulturaren munduetan. Eta gurean aldiz, «tempo» bakarra dagoela pentsa daiteke.

Ageri zaigun sinkronia nabarmenegi hori, beraz, axalagoa da dirudien baino. Baina urruntasuna falta zaigu gaurkoz.

Azkeneko 25 urteetan, oro har, *ezker abertzaleak* eutsi dio (eta eusten ere, hein handi batez) euskal kulturaren pizkundeari. Gaur egun, diruaren poderioz, eta instituzio



autonomikoez karrerismoari ireki dizkioten aukerek pitin bat aldaturik, funtzionario edo «lanari» mordo handi bat agertu da. Baina 1956-1975 edo 1976 tartean horrelakorik ez zegoen; eta euskal kulturaren gorabeherak, ezker abertzalearen iturburu dagoen ETA-ren gorabeherak ispilatu dituzte. Baita ideologiaren sailean ere. Garbikiago esatekotan: euskal herrigintza ETA-ren inguruan mogitu den urteetan (aurreko hogeitau urteetan barrena edo), euskal kultura gora joan da, joera berriak sortuz eta sail berriak irekiz. Euskal politika PNV-ren (eta akolitoen) inguruan mogitzen hasi denez geroztik, hozitu berriak ziren adar berri batzuek ihartu dira, eta euskal kultura funtzionariatu eta hoztu egin da.

Badirudi, beraz, euskal kulturaren geroa euskal ezker iraultzailearen geroarekin lotuta dagoela. Euskal eskuintzaren folkloretzat baita euskal kultura; eta euskal gizarte baten proiekturik ez baitu.

Euskal ezker abertzalea, ordea, oraindik osatzekotan dago; eta hizkuntzaren alorrean sozial-inperialismoaren eragina du gehiegitan.

Geroa, beraz, ez da guztiz garbi agertzen.

Aldakuntza politikoak direla-eta, euskal *kultur-gizonari* buruz ere, aldakuntza sakona izan da gutartean, «Vascongadetan» bereziki: 1956/1976 urteetako euskaltzale *militante*ari, euskaltzale suharrari; gaur euskaltzale funtzionario eta txepela nagusitu zaio *askotan*. (Era berean, jakina, isilpeko buruzagi edo gudari ausartari, agiriko oportunistak ustela eta frankismoaren ondoko sasi-abertzalea nagusitu zaizkio).

Nafarroan eta Iparraldean gauzak ez dira horrenbeste aldatu; eta, eskualde horietan, gaur orain dela *hogeitau* edo berrogei urte bezala, «betikoen» eskuetan daude ins-

tituzioak; eta abertzaleak eta euskaltzaleak erabat daude bazterturik eta aparatoaren kontra, frankismoaren garaian bezalatsu. Nafarroako eta Iparraldeko egoera, horretara, hobeki ezkontzen da *egiazki dagoen aginte-zatiketa-rekin*, «Vascongadetan» baino. Hauetan instituzio autonomoek *izkutatu* egiten baitute funtsezko menpekotasuna. Izkutaketa horren fruitu kaltegarria «Vascongadetan» ageri da. Eta kulturaren mailan giro bera dago: itxurazko triunfalismoari, egiazko miseria dagokio.

Euskal kultur munduan ari diren *guztiak ez dira* gaur horretan. Ezta Vascongadetan ere. Hain zuzen ere, garai gogorretan zaildutako *abertzale fin batzuk* lortuak dituzte postu batzu bederen. Eta horietxek dira instituzioen bidez Euskal Kulturaren alde lor daitekeenaren berme bakarra. Besteak berriz?

Hurbil gaitezen orain egoerara urteetan barrena.

## BELAUN-TRUKEA: 1952-1956

1936-ko gerratea, jakina, ez da Euskal Herrian axaleko ixtorio gertatu...

Frankismoaren desmasiak eta sarraskiak 1936-1937-an, 1937-an abertzale askoren hilketa eta atzerriraketa, ondoko urteetako zapalketa kupidagabea, demografi aldaketa larriak, Mendebaldeko eta Ekialdeko demokrazien saldukeria, euskal burgesiaren gizenketa lotsagaldua, eta abar, eta abar, ez dira gertakari xume eta garrantzigabe izan. 1936 urteak luzerako markatu du gure herria.

Eta areago markatu, zauritu, noski, gerra hura egin edo jasan (beren gorputzetan jasan, alegia) zutenen belauna.

Eta ondoko urteetan, berrogeietan eman dezagun, hitzez borobilki esaten ez bazen ere, hau soma zitekeen eztabaida askotan (eta gutxi izaten zen horrelakorik, gainera): «*izan al hintzen hi Kalamuan?*» —edo Intxortan, edo Santoñan, hori berdin zen— «*Ez? Hortaz, ixo!*»...«*Gainera ezer berririk asmatu beharrik ez dago. PSOE aldatu egin da oposizio urte luze hauetan. Mendebaldeko demokratek badakite, bestalde, hemen zer gertatu den. Itxaron, beraz!*». Horrela 1953 ingurura arte. Geroago ezer ez: isildu egin ziren, eta kito.

Ulergarria zen. 1945/1951 urteetan borrokan (borroka

zail eta arriskutsuan) ari izandako «Resistencia» hura ahultzen eta itzaltzen zelarik, zer egin? Etsipena osoa zen 1952/1953 urteetan. Eta aurreko etsipen pilo bati gaineratzen zitzaion. Ez dezagun ahantz: 1936-ko gerra galdu zuten abertzaleek, Gurs-ko landa eta Gestapo-ren bosturtea ezagutu zuten segidan. Demokrazien saldukeria gertatzean, 16 urte zeramaten etengabe galtzen: itxaropena eta bizia batera.

Ulertu egin behar da. Baina, berezkuntza batzu salbu, gerra egin zuen belaunak potto egin zuen 1950 urteetan. Hau hala da.

1952-an frankismoa UNESCO-n onartua izan zenean (Kulturaren aldeko organizazio berezian, kultur mota guztien zafratzaile zen sistema bedeinkatua!), baikorrenen esperantzak suntsitu egin ziren. Eta lerro artean bederen (diktadura betean informaziorik ez zegoelako) Euskal Herriko belaun berriak «hura ez zihoala» somatu zuen. Beren 18-30 urteetan zeuden abertzaleek (gerra egina ez zuen lehenengo belaunekoek) «zerbait» berri egin behar zela pentsatu zuten. Horrela, eta ez bestela, azal daiteke «*Ekin*»-ETA-ren sorrera.

Hona seinale batzu:

1952- Telesforo Montzon-ek Jaurlaritza utzi.

1953- Indalecio Prieto, kanpoko errepublikanoekin hautsi.

1953- Eisenhower Madrilen, Franco besarkatu.

1953- Konkordatoa Elizarekin.

1954- Frantzia-ko Gobernuak Mugerre-ko «Euzkadi Irratia» hetsi.

Ez da txiripa «Ekin» taldea 1953-an sortzea.

Eta ez da txiripa bat Agirrek 1954 aldean «Congreso

Mundial» delakoa biltzeko asmoa izatea, eta 1955-an bilerara deitzea. Krisia hor zegoen; eta ezin zitekeen aurre-  
rago izkuta.

Hau guztia ongi nabaitu zen euskal kulturaren munduan, ondoko lerroetan azalduko dugunez.

Aldera dezagun beste fetxa zerrenda hau:

1950- Aita Zaitegi, «Orixe» haraino eramanez, «Euzko Gogoia» aldizkaria sortu Guatemalan.

1950- Labaien bidez, Orixe-ren «Euskaldunak» poema argitaratua.

1950- Orixe-ren «Meza Liburua».

1950- Zentsura ahal bezala gaindituz, «Kuliska-Sorta» liburu-saila hasten Zarautz-en.

Iparraldean argitaratzen zen «Gernika» hirimintzoduna, oso gutxi ezagutzen zen Hegoaldean; eta Miarritzen bertan egin ziren Euskal Biltzarreek, ez zuten oihartzun handirik lortu.

Ondoko urteetan abiatu ziren aldizkariak ere, kolore eta kezka berak agertzen zituzten:

1953: Anaitasuna (Bizkaian)

1954: Zeruko Argia (Nafarroan)

1954: Othoizlari (Lapurdin)

Hirurak Elizarenak, eta eliz-gizonek eramanak. Baina gero, piskanaka, oso aldatuko zirenak. Ez da inoiz ahaztu behar, urte hauei buruz hitz egiterakoan, eta Hegoaldeari dagokionez, frankismo betean gaudela; eta *zentsura* dagoela tink.

Jon Etxaide eta Xalbatore Mitxelena, adinez gazteago izanik ere, eta idaz-gaiei buruz zerbait aldatu ere,



ez dira belaun berrikoak:

1949: X. Mitxelena, «Arantzazu, Euskal Poema».

1955: J. Etxaide, «Joanak joan», Etxahuni buruz.

1958: X. Mitxelena, «Unamuno eta Abendats», saiakera.

S. Onaindia-k 1954-an argitara zuen «Milla Euskal Olerki Eder» liburuak bazterrak harritu bazituen ere («badaude, beraz, 1000 olerki euskaraz?»...) bilduma hutsa zen; baina euskaltzale gazteek inolaz ere eskuragarri ez zituzten idazle batzu ezagutzeko aukera izan zuten.

1954-an, dena dela, «Egan» aldizkaria sortu zen Donostian, Mitxelena, Irigarai eta Arrue-ren gidaritzapean. Eta honek, bai: geroago azalduko dugunez, belaun berriaren mezua eman zuen zentsurak apaldurik bazen ere.

### *Etendura: bai eta ez.*

Euskal kulturaren alorrean 1956-en inguruan mamitu zen krisialdia gauza nabarmena izanik ere, belaun berriak (edo belaun berriaren brankak berak) kolpez eta brauki aurrekoa ukatu zuela pentsatzea, egiatik urrun litzateke. Oker bera egitea litzateke beste hau: gerra egin zutenen belaunaldikoak ere, orduantxe agortu eta isildu zirela uste izatea (hor dugu oraindik «Euzkerazaintza», eta antzekoak, 25 urte geroago).


Belaun berriak —bai kulturaren alorrean, bai politikarenean— aurreko puntuzkoak, eta berauen ideiak, zituen eredu haseran. Gezurra badirudi ere, F. Mendiabal, A. Irigoien eta G. Aresti, esate baterako, «garbizaleak» izan ziren beren hastapenetan. Bai «Ekin» talde politiko berriko euskaltzaleen artean, bai «Jakin» aldiz-

kariaren inguruan, 1950-1956 urteetan gutxi gora-behera Orixe eta Zaitegi ziren ereduak; eta guztiz isilka eta tantaka iristen zitzaigun «Euzko Gogo» (Orixe-ren «Kito-n arrebarekin», adibidez) izan zen gu guztion edari nagusia.

«Jakin»ek bere ale berezian aitortu duenez, Orixe zen azken hitza; eta proposamenak, askoren ustez, ez Euskaltzaindiari, baina Orixe-ri egin behar zizkion... Orixe-rengan zegoen euskalaria eta zegoen ultraeskuindarra berezten zail izanik, garbi ikus daiteke euskaltzale gazteak zein abiapuntutatik abiatu ziren. «Euzko Gogo»k, esate baterako, eta oker ez banago, erruz hitz egin zuen Grezia klasikoaz, baina behin ere ez Guatemalako Quiche indio zapalduz (Eta ez taktikaz bakarrik: «Colonialisme et Indianité» liburuaz artikulu bat neronek idatzi nuenean, Zaitegik berak erantzun zidan, eta artikulu hura ez zitzaiola batere egokia iruditu esan zidan argi-eta-garbi).

«Jakin»ek guztiz egokiro azaltzen du euskaltzaleen arteko giroa: «Euzko Gogo»ren hobespen honetarako arrazoiak desberdinak ziren. Gure begiotan egiaz kategoria haundiko aldizkaria, eta ez jakinlarien begiotan bakarrik, *Euzko Gogo* zen orduan: izen sonatuengatik batik-bat (Orixe!); baina baita erbestetik eta klandestinoki zetorrelako ere, erresistentzia heroikoaren eta kontzesiorik gabeko borrokaren sinbolo gisa» (Jakin 21,150).

Mitxelena-ren inguruan gero ateratzen hasiko zen «Egan» aldizkaria (1954), nahiz berrizaleago izan, bazuen, «jakinlariak» xuxen esaten duten bezalaxe, halako «kolaboratzaile produktua» fama: frankista Diputazio batetan argitaratua, Arrue-ren bedeinkazioarekin... Euskaltzaindia bera, garai hartan karlistaz josia (Arrue, Oleaga, Seminario Rojas, etab.), zaku berean sartzen zuten baztuk. .



Euskaltzaleek, halere, bi iturri horietan hartu zuten urte haietan beren hazkurria.

Baina biak bateratsu itzali ziren. «Euzko Gogoa» Lapurdira aldatu zen 1956-an, eta tamaina eta itxura dexente aldatu; baina 1960-an potto egin zuen. Orixe bera 1961-an hil zen. Eta «Egan» gero eta bakanago argitaratzen zelarik (urtean behin gehienez 1966-z geroztik, motelketa hau zanpaketarekin lotua).

## BELAUN BERRIAREN PLAZARAKETA: 1956-1968

Orain arte idatzitakoaren bidez, garbi xamar gelditu da agian 1956-en aurreko urteetan prestatzen hasia zen kinkaldia: bai euskal politikaren mailan, bai kulturarenean.

Askatasun formalak itxuraz bederen errespetatzen dituzten bi Estatuak baizik ezagutu ez duten gaurko euskaldun gazteei, guri bereziki dagokigun Euskal Kulturaren alorrean fazismoaren garaiko giroa eta zailtasunak zer ziren ulertzen neketsu zaie.

### *Zentsuraren arazoa*

Jakina: gaur ere, 1982, gauza batzu esateko beldurra dago Euskal Herrian, eta liburu batzu debekatuak izan dira azkeneko urteotan. Baina fazismoaren garaiko zentsura erabat desberdina zen.

Euskaraz ezin zitekeen *ezer* argitara.

Zeuden oztopoak ulertzeko, oso ona izan daiteke «jakinlariak» erabili behar izaten zuten hizkera gogoraztea:»... «con el fin (Jakín) de iniciar a los estudiantes teólogos y filósofos, de las diversas casas franciscanas, en investigaciones filosófico-teológicas y estudios culturales



en vascuence» (1964)...

Hala ere, Arantzazu-ko *komentuan*, *frailegaiek* ateratzen zuten aldizkari apal hura, *bi aldiz* eta *hamaika urte luzez* (denbora osoaren %44) egon zen debekatuta: 1961-1964 lehenengoan, 1969-1977 bigarreanean...

«Movimiento» ez zen guztia, debekatuta zegoen: «El criterio es claro: se puede publicar todo lo que no atente a los principios fundamentales del Estado español... Tampoco me parece procedente publicar nada que pueda hacer el juego a los enemigos de esos principios fundamentales», idazten zuen 1956-an Donostia-ko Delegatu frankistak. Garbiago... ur garbia.

Alderdi politikoak, erabat ezindurik, populu-mailan propaganda abertzalerik batere ez zen banatzen («ekin» taldeak berak ez zuen banaketa handirik hasi 1958-ra arte). «Radio Paris», Londres-ko «BBC», eta Praha-ko «Radio Pirenaica», ziren bakarrak, «Radio Euzkadi» 1954 hetsia izan zenez geroztik. Eta, hitz batez, euskal kulturak inolako laguntzarik gabe aurkitzen zuen bere burua indar politikoen aldetik.

Ikastolarik ez zegoen oraindik garai hartan, Elbira Zipitriak Donostian zeukan bakarraz gain. (Ugalketa 1952 eta 1953-an hasi zen Donostian, beste bospasei irekitzen zirelarik). Administrazioa fazisten eskuetan zegoen goitik behera; funtzionariak sistematikoki kanpotarren artean hartzen zirelarik. Prentsa erdara hutsez egiten zen Euskal Herri osoan, gorago aipatu ditugun eliz-aldizkarien salbuespenaz. Irratia, «baserritarrentzako» irratsaio batzu salbu, erdara hutsez. Euskarazko libururik ez ia-ia. «Ekin»-sortak Argentinan argitara zituenak (Irazusta, Ametzaga, L. Mendizabal) eta bestetan agertuak (Monzon), herri xeheak ez ditu gaur arte ezagutzeko aukerarik izan.

Han-hemenka, isilpe osoan, *taldeska urri batzuk* eusten zioten euskararekiko garrari ahal bezala; eta ahal zizutuzten euskal liburu eta aldizkariak noiz-nola baliatzen zituztelarik. Eta izkutuka ematen ziren euskarazko eskoletara biltzen bide zen garai hartako multzo-euskaltzaletasun bakarra. Folklore taldeak berak poliziaren mehatxupean bizi ziren; eta, kale-giro kiratsetik ihes egin nahiz nonbait, arrakesta gaitza biltzen hasi ziren mendigoizaleak, mendi-ibilaldiak, erromeriak, eta abar. Eta ahal zen neurri urrian (garaiaren arauera, ez horren mespretxagarrri), kultur lan apur bat burutu zen beretan.

Belaunen arteko hizkuntza-katean, familia izaten da oinarri nagusia. Hots, berrogei-ta-hamarretan, euskararen kontrako giro lehorraren eraginez (eta frankistentzako beldurrarengatik ere bai, Nafarroa-ko herri txikietan bereziki), erdara nagusitu zen euskaldun familia askotan. Diglosi giro osoan, Iparraldean frantximenkeria zihoan gora, eta abertzaletasunik eza gaineratzen.

Baina Gipuzkoan eta Bizkaian, aurreko urteetan hein handi batez jeltxide izanak, hizkuntzaren garrantzi osoaren kontzientziarik ez zegoen; eta erdararen nagusigoa berdintsu gertatu zen familia «abertzaleetan» eta gainerakoetan. Aski genuke, baina ez dugu egingo, jeltxide puntuzkoen zerrenda bana-bana aztertzea; legea betetzen ez dutenak, familian euskaraz mintzo zirenak alegia, nabarmendu egiten dira guztiz.

1956 inguruan, horretara, erdaraz *ez zekitenek* erabiltzen zuten euskara; gaur Nafarroako edo Xuberoko herri txikietan eta baserrietan bezala: zaharrek eta ezjakinek. Berriz ere: dauden berezkuntzek erregela indartzen dutelarik.



## 1956: PARISE ETA ARANTZAZU. BI BILERA GILTZARRI

Lan honetan Kulturaz mintzo gara. Baina Parisko eta Arantzazuko bi biltzarrak ezin bereziak dira.

Era berean, anakronismo hutsa litzateke gaurko giroa, edo orain dela bost urteko giroa, 1956 urtera eramatea.

1956-an bertan, euskal gizarte osoari begiratuz gero, *oso oihartzun txikia* lortu zuten: herri xehearen mailan, bai Hegoaldean bai Iparraldean, izan zirenik ere erreparatu gabe ahaztu zirela esan behar genuke. Garai hartan jende gutxi kezkatzen zen euskal gaiez.

Biltzar horietan azaldu ziren joerak, beraz, ez ziren populuaren joerak izan; ia ilunpean, esperantzarik gabe, egoera deskalabratu hartan, *talde txiki-txiki* bakan batzutan hozitzen hasten zen abertzaletasun berriaren lehenengo zantzuak baizik. Ideologiaren zerbitzutan besterik esan daiteke (eta esan izan da); baina 1956-an abertzaletasuna multzo *txikitan* baizik ez zegoen. (Nahiz abertzaletasunera eramateko arrazoiak hor egon, tinko eta mehatxatzaile).

Bertako burgesiaren hazkuntza ekonomikoa nabarmena bazen ere, honen prezioa geroago agertu zen: gure herriaren gainbehera sail guztietan. Eta euskal kulturarenean ez gutxiago.

Geroko pizkunde gogorraren iturburu ere bai, jakina. Baina, Ameriketatik etorri berria zen A. Zaitegik, gazte euskaltzaleekin harremanetan jarri ondoren, ongi azaldu zuen hau Parisen: «Euskera il zorian dago. Ori ezin ukatu. Ala ere ba-dator gaztedi berria, euskal mistika berriz iantzi eta berritua».

### *«Congreso Mundial Vasco», Parisen.*

Paris-ko Biltzarrean euskal kultura, eta euskararekiko kezka, agertu ziren: 44 txostenetatik, 30 euskarari buruz. Arantzazu eta Paris, horretara, elkarretatik berezi ezinak dira. Paris-ko «Congreso Mundial» delakoan (Irailaren 23-tik Urriaren 1-ra), belauen berriaren ahots abertzale berria lehenengo aldiz entzun zen bezala (F. Kruttwig-ena; ETA-ren hazia zen «Ekin»ena); bide bertsutik Arantzazukoan —baita handik bi urtetara Bilbo-n egingo zen batzarrean bezalaxe— euskal kulturaren sortzen hasia zen pentsakera edo sendikera berriaren kezka eta ahotsa azaldu ziren.

Atzerriko «euzko» instituzioetan euskarari buruz zegoen axolakabekeria osoaren kontrako erasorik gogorrena, Paris-en, «Euzko Jaurlaritza» utzi berria zuen Telesforo Monzon-ek bota zuen agian.

Egia da Jose Antonio Agirreren hitzetan bazegoela euskararekiko kezka: «Benetako abertzale baginake, ez litzake euskotar bat be euskera jakin barik egon bear». Baina deklarazio horietatik praxira tarte handia zegoen; eta T. Monzon-ek Jaurlaritza utzi zuen hilabeteetan esanik, egindako kritiken erantzuna izan daiteke. Paris-ko Biltzarrean Argentina-ko F.E.V.A.-k, B. Ametzaga eta I. Gurrutxaga-ren eraginez, atzerrian bizi ziren euskaltzaleen beldurra azaldu nahiz, hitz garratz hauek entzun erazi

baitzituen: «no vayamos un día a encontrarnos con que la victoria política nos lleve a conseguir la libertad de un pueblo que ya no existe».

Hegoaldeko egoera zein zen, ongi azaldu zuen «Ekin» taldeak bere txostenean: «La casi totalidad de los vascos de menos de 30 años hablan mejor el español que el euskera, porque piensan en erdera. La creencia de que el euskera no sirve para nada es general. La inmensa mayoría de los vascos colaboran en la muerte de nuestra lengua. El euskera está al margen de la juventud vasca y en estado francamente agónico»

Orduko euskaltzale berrien iritzia ongi azaldu zuen Kruttwig-ek bere «Vasconia» liburuan, handik bospasei urte idatzia: «han llegado los seguidores del nacionalismo a convertirse en los más abominables enemigos de la lengua vasca».

### *Arantzazuko bilera*

Horrelakorik aspaldi hartan ospatzen ez zelarik, eta Euskaltzaindia bera Azkue-ren heriotzaren ondoren (1951) herabe jaikitzen zelarik, Irailaren 14/16-an bildu zen Arantzazu-ra euskaltzale pilo bat. Batzu, handik hiru astetara, isilpean Paris-kora ere azaltzeko asmo izkutuan.

Iparraldeko euskal idazle «berriek» (Mirande ezaguna zen Hegoaldeko zenbaiten artean, Jon Etxaide adibidez) Hegoaldeko «berriak» buruz buru gurutzatzeko aukera izan zuten: B. Gandiaga, F. Mendizabal, J. Azurmendi, J. Intxausti, Bastarrika, Aresti, B. Kapanaga, etab. Bil dutakoen arteko lokarri (edo oroigarri agian) gisa, itxura ezin apalagoa zuen euskal aldizkari berri bat banatu zen biltzarkideen artean: «Jakin» (oraingoa bera, ia pertsona



berberek bultzatua); baita gaur arte egin den bertso-bilketa lanik handienaren lehenengo alea: «Auspoa», Aita Zabalak ateraia.

Aita Villasantek, bere aldetik, garai hartan Kruttwigen aburukide puntu askotan, *Euskara Batua eta Normalizatu*a jarri zuen euskaltzaleen helburu nagusitzat.

Ehun bat euskaltzale hiru egunez elkaturik egote hutsa, garrantzitsua izan zen. Oraindik atzerrian bizi ziren euskaltzale famatu batzu Arantzazura ez etorririk ere (Orixe eta Kruttwig, esate baterako, pentsamendu bi muturretan), biltzartuak zuzpurturik irten ziren.

Horrez gain, bai bertara joan zirenen hitzaldietan, bai bertara ezin agerturik ere txostenak bidali zituztenen izkribuetan, halako adostasun harrigarria errepara zitekeen.

Alde batetik, *Euskara Batuaren* beharraz. Bai Villasante-k berak, biltzarretako lehendakariak —euskaltzain soila orduan, ez ordukoz euskaltzain-buru— bai belaur berrian agertzen hasiak diren euskaltzaleek (Mirande, Txillardegi, Aresti) kezka bera zuten: euskara biziko bada, *euskaldun guztien arteko mintzabide bakun eta osotu* bihurtu behar zen.

Beste alde batetik, «normalizazio» edo eguneraketa horretan, oinarriak *euskara zaharrear* (literatur euskaran) jarri beharri, bai borobil bat eman zitzaion; nahiz orduan Orixe (Nikolas Ormaetxea) izan ikutu ezinezko eredu; eta eredu gisa, dexente urrundua literatura klasikotik. Joera hau gerra aurreko irizpide garbizaleen kontra zihuan (Orixe bera ez zen garbizaleena, baina bai gramatika-gaietan eroenetakoa); eta haren funtsaketan, K. Mitxelelak jokatu zuen finki eta ausarki, autore zaharretara *ikas-tekotan* joan behar zela azpimarratuz.

Joera berri honen arauerakoa da, noski, zentsura gaintuz loratzen den argitaraketan:

1954: Kresala (Tx. Agirre)

1954: Gero (Axular, M. Lekuona)

1954: Milla euskal olerki eder (S. Onaindia)

1956: Peru Abarka (Mogel);

baita gerra-aurreko baloreak ezagutarazi nahian:

1956: Biotz Begietan (Lizardi)

1956: Aitorkizunak (Orixe)

1956: Abarrak (Kirikiño)

1956: Garoa (Tx. Agirre)

1956: Ilias (Zaitegi)

Kultur mailako hiztegi gintzan, garbizalekeriari utzi, eta *erdaretara eta erro greko-latinoetara* lotsarik gabe joan beharra proposatu zen (honetan ere Mitxelena, Euskaltzaindiaren bidez, erdal jatorriko hitzen *alde* sinarazitako Agiriaren ondoren, 1959). Honetan batera zeuden hara azaldu ez zen Kruttwig; eta bertara ziren Mitxelena, Villasante eta Aresti: «Erri-euskeraren itzekin nai dugu dena esan dedin eta dena adirazi dedin, ta jakina, ori ezin ditekean gauza da. Inungo erri-izkera arruntean arkitzen ez diren kontzeptu eta itzak, gurean ere ez arkitzea, ezta batere arritzekoa; aitzitik gauza normala da. Gaztelako erri-izkerak ere, jatorriz, asieran, etzituuan orrelako kultur-izenak, baino etxeratu bearrean arkitu zan, eta ala biurtu zan kultur-izkuntza landu aberatsa», esaten zuen Villasantek. Eta Kruttwig-ek behin eta berriz errepikatzen zuen gure hizkuntzan erro greko-latinoen aztarna agertzea, euskaldunen ohorea zela; euskaldunok kultura greko-latino horretan edan baitugu, eta ez baikara bizi izan mendian isolaturik.

## ALDAKUNTZAREN HASTAPENA

Baina gaur gezurra badirudi ere, borroka ez zen erraza: asmo horiek oso berriak ziren gure kultur mundu txikian. Gerra aurrean gauzak *nola* esaten ziren zen irizpide bakarra, «nola» horretan hiztegiaren «garbitasuna» (are «jelkidetasuna») besterik sartzen ez zelarik. Mezuak ez zuen munta. Handik urtebetera Mitxelenak berak Txillardegiren «Leturia»ri egindako hitzaurrean aski garbiki esaten zuelarik. Dena dela, gaurko «Euzkerazaintza» izan dakiguke baliagarri gerra aurreko euskaltzaleen kezka nagusiak zein ziren somatzeko.

Arantzazun nabaitu ziren *bi joerak*, gero eta nabarmenago ageriko zenez, Euskal Herriari buruzko *bi ideia* desberdin zeramaten hondoan: *Batuaren* aldekoa bata, *euskalkien* aldekoa bestea; *gaurko gizartean* euskara sartzearen aldekoa bata, euskara «garbi» hura *antzinako* gizarte «garbiari» (?) lotuta uztearen aldekoa bestea; *aurre-razalea* bata, *atzerazalea* bestea. Nahiz 25 urte hauetan, puntuzko bat edo beste «bandoz» aldatu bada ere.

Hirugarren alde batetik, beraz, *kultur adar guzietan* sortu zen erdibiketa: kanta berria agertzean, kanta folklorikoaren aldekoek beren soinekoak urratu zituzten; nobela berria edo poesia berriaren arauera, zatiketa bera.

Nolabait ere (baina parekoketa hau muturretara eramane gabe, euskaltzaleak frankismo pean bizi baitziren

gehienez, eta babesaren beharrak egia izkutatzen eta faltsutzen baitu) *bi euskal aldizkariren inguruan* mamitzen ziren bi joerak.

Gerra aurreko proiektu garbizalea Guatemala-ko «Euzko Gogo»k bildu zuen (1950-1960), Zaitegi eta Orixe-ren inguruan. (Zaitegi-ren mogimenduak argigarriak dira: Guatemalan 1950-an, Lapurdira -Miarrizera- 1956-an, 1960-an aldizkaria hertsu behar). «Euzko Gogo»ak euskara «garbia» nahi zuen, eta gai «garbiak». Orixe-ren *anti-modernismoak* han aurkitu zuen bere hazkunde-lurraldea. Zentsuraren atzaparretatik urruti agerturik ere, «E. Gogo»k ez zuen Euskal Herriko zapalketa aztertzen, esate baterako. «E. Gogo»ren politika-gabetasuna eta «Gernika»ren kopeta-zabal-keria (hau eta hura, Talamas eta Zaitegi apezek zuzenduak), oso harrigarri gertatzen dira gaur; garai hartan zeuden kultur-aldizkari zentsuragabe bakarrak, beroiek izanik.

Artikulu garaigabeak eta anakronikoak ez dira «E. Gogo»n falta.

Donostia-ko «Egan»en, berriz, zentsurak eta Arruek berak ekartzen zizkioten mugaketak ezaguturik, garaiko munduan sartu nahi zuen: ikusitako filmen kritika, literatur atal berriak, zientzi gaiak, euskal sukaldaritza bera. Ahalean *gaurkotasunezko gaiak* ikutzen zituen. Baina, gorago ere azaldu dugunez, frankismoaren bedeinkazioarekin azaldua, «Egan»ek bazuen bere kontra «kolaborazionismo»aren kutsua.

*Literatura berria*, euskaraz sortua alegia, antzua zen oso 1956-an. Ez dezagun ahantz —Torreldaik erakutsi duenez— lau liburu *berri* baizik ez zirela agertu urte hartan. Kopuru horretan, hiru erlijio-liburu zeuden, eta gramatika bat; eta lau liburuok apezan emaitza ziren: A. Goi-



ria, A. Manzidor eta A. Villasante (Hegoaldean), eta G. Eppherre (Iparraldean). *Euskal prentsa osoa* apezten eskuetan bazegoen («Zeruko Argia» Kaputxinoenetan, Baiona-ko «Herria» Aita Laffitte-renean, «Anaitasuna» Frantziskotarrenetan, «Othoizlari» Beneditarrenetan, «Jakin» Frantziskotar gazteenetan, «Gernika» eta «Euzko Gogoa» aipatutako bi apeznenetan, eta abar; «Egan» salbu); *euskal liburugintza* ez zen laikoago... Egia da Mirande, Kruttwig, Etxaide, Aresti, eta beste, ez zirela apezak; baina hauek, belaun berrikoak ziren. Honetan ere gerra aurreko giroa soma daiteke. (Euskaltzaindia bera Aita Azkuek sortu zuen, eta gaur egun aita Villasante du Lehendakariatza, eta Aita Satrustegi Sekretario edo Zadorlaritza; eta biltzarreak «Aitaren» batekin hasten dira). «Orixe», bestalde, eliz-gizona izana zen; eta izpiritu-moldez fraile arkaikoa zen.

Hau guztia oso kontutan hartu behar da, euskal kulturaren bilakaera ongi neurtzeko, eta belaun berriak ekarri dituen aldakuntzen garrantzia ulertzeko.

Euskal literatura berria hasi zenean, nobelan eta poesian batez ere (Txillardegia eta Aresti-ren inguruan), euskal kulturaren «establishment» guztia, Orixe buru, kontra jarri zen: «eri baten erikeriak» aurkitu ziren nobela berrien ideietan, edo, Orixe-ren hitzak gogorazteko: «Barrenak ez dit agintzen ixillik egotea, liburu onek («P. Leartza-ko»z ari da) gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik». Ondoren etorri ziren idazleek harrera bera izan zuten. Eta Euskara Batuaren aldeko prozesua bera, «komunisten» jokoan izan delakoan (eta joko horretan extremistek Aita Villasante bera salatu dutelarik!), gaizki hartua izan zen. (Politikaren sailean ETA-ri eta euskal ezker abertzaleari zer gertatu zaien gogoratu beharrik ez dago).

## *Ikastolak*

Euskal kulturaren munduan garrantzi handia izan zuen ikastolaren mogimenduak. Eskola ofiziala ordaintzekotan sortua, euskara hutsez irakasten duen ikaspidea, diru pribatuan finkatua, ikastola izan da «deskolonizazioaren muina», M. Goihenetxeren hitzez esateko; baita frankismoan barrena, eta oposizio osoan, sortu eta hazi den populu-ekarpenik garrantzitsuena.

Hots, ikastolaren mogimendua, lehenago sorturik ere, 1960 inguruan hasi zen zinez hedatzen; Gipuzkoan barrena aurretik, gainerako probintzietan ondoko urteetan.

Ikastola, berriro ere, ez da, izan, frankismoaren garaian *jai*o. «Ikastola» hitza bera ere ez. Baina masa-gertakari gisa, populu-mogimendu gisa, 1936-en *ondoren* maitu da.

Gerra ondoko lehenengo andereñoa, eta ondoko «pionero» guztien eskolatzaillea, PNV-ko Elbira Zipitria anderea izan da. Erdi isilka, beti zigorraren beldur, Elbira-ren etxera biltzen ziren arratsero, gero, 1950-1952 urteetan, Donostian lehenengo bospasei ikastolak irekiko zituzten andereñoak.

Bi belaunen arteko lotura lortua zegoen, hein batez; jasotako hiztegi garbizalean bertan ikus daitekeenez: ingurrazti, kakots, kulatz, batuketa... Lehenengo urteetan erabili ziren liburuak ere (urri, izkutu, gerraz geroztikako ale zaharren bidez askotan) gerra aurrekoak izan ziren: Orixe-ren «Kili-Kili», L. Mendizabal-en «Xabiartxo»... Urrun ziren ikastolak gaur dagoen liburu-sail ugarietatik. Lege-babesik ezin izanik, elizara hurbildu zen mogimendua, hala-beharrez; eta honek ondorio eta eztabaida larriak izan zituen ondoko urteetan. Ikastolaren etsai anti-

euskaldunek erasotzeko aitzekiak baizik ez baizuten behar.

Arrazoin askorengatik batera, eta hastapenetako ikastolak legetik atera zirelako, aurreko urteotako zifra fidagarriak lortzen zaila da: agintzen zuten frankistek ikastola gora zihoala erreparatzea, arriskugarria zelako. Ikastolari buruz, horregatik, eman ohi izan diren kopuruak, egia baino apalago dira.

Behin eta berriz irakurtzen da, esate baterako, lehenengo ikastola Gipuzkoan 1960-an sortu zela, Hots, El-bira Zipitriak askoz ere lehenagotik (1948-1950 gutxienez) abiatuak zeukan bere euskal *ikastolaz* gain, *gutxienez beste sei ikastola* eta haurtzaindegi ziren lanean hasiak 1953-1954 urtean, ia-ia osoki izkutuan; eta zeramaten sei emakume haien izenak ezagunak dira: Amale eta Itziar Arzelus ahizpak, Faustina Karril, Jone Forcada, Karmele Esnal eta Itziar Muxika. 1955 inguruan, beraz, ikastolen mogimendua abiatua zen; denetara 100 bat haurrek beren lehenengo ikaskuntza euskara hutsez hartzen zutelarik.

Bizkaiko lehenengo ikastola 1960 inguruan zabaldu zen (2 ikastola gutxienez 1963-an); Araba-ko lehenengoa 1963-an; Nafarroa-koa 1965-an; eta Iparraldean, Arrangoitzen (Baiona-ren ondoan) zabaldu zen lehenengoa 1969-an.

Ondoko zifrei buruz, hortaz, lehenagoko oharrak berriztatzen ditugularik, hona hemen Mikel Lasak argitara dituen kopuruak (1964-1965 ikasturterako):

Araba .....	22
Bizkaia .....	54
Gipuzkoa .....	520

Hizkuntzaz jabetzeko pedagogi-arazo berezirik ez zen garai hartan sortu: haurrak euskaldunak ziren askotan.

Urte haietan bestalde beren seme-alabak ikastolara bidaltzen zituzten gurasoak, abertzale porrokatuak ziren. Eta entzuten zituzten kritika guztien gainetik eusten zieten ikastolei («kritikak funtsatuak izan ala ez izan, ikastolari eutsi egin behar»). Zenbat aldiz ez zen orduan entzun ikastolak «saialekuak» zirela, haurrak«akuri gisa» erabiltzen zirela, «osasunarentzat kaltegarriak» zirela, «totelak» ekartzen zituztela, eta abar.

Diru-arazoa ere, *herri xehearen laguntza soilaz* konpondu zen. Frankistek, noski, xentimorik ez zuten eman! Eta «euskal» burgesia nagusiak, eta nolana hiko dirudunek, ezer gutxi lagundu zuten. Are gutxiago 1968-z ondoko urteetan, andereñoak (adinez eta sendikeraz ezker abertzaletik gertu) «gorri»tzat salatuak eta tratatuak izan zirelarik. Harrigarriro, ondoko lerroetan ageriko denez, ikastolak lortu zuen agian Euskal Herriak azkeneko urte hauetan lortu duen populu-mogimendu abertzalerik indartsuena.

Fazisten debekuak eta kolpe zatarrak ez ziren faltatu, noski. Aberri-borroka azkartu ala, frankistek herria ETA-ren alde jarri nahi ez, eta ezin argudiorik eman: ikastolak hertsiz, esate baterako. Ikastolen aldeko babesik sendoena, horretara, ETA-ren borroka gogorra izan zen. Eta ikastola, horrela, herriaren borroka azkartu ala, eta azkartu zen heinean hain zuzen, ikastolak «libre» bihurtu ziren; batez ere, 1968-z geroztik. Erasoak maltzurrago egin ziren: «osasun baldintzak» («atsedenaldia» ez zela eguratsuan egiten, eman dezagun), andereñoen «titulazioa» ez zela errespetatzen, «España-ko geografia ez zela azaltzen», eta abar. Dena dela, 1964-1966-ra arte, ikastola *izkutua* izan zen zinez; oraindik mogimendu txikia zelako, eta borroka aski azkarra zelako.

Sozial-inperialisten erasoak ere ez ziren urri (eta 1970 inguruan iritsi zuten beren punturik gorena). Ikastola «burgesa» zela-ta, ikastola «elizkoia» zela-ta (andereño asko ezkertarregitzat baztertuak ziren mementuan!), euskara bera «burgesa» zela («euskara apezten kontua da, eta guk iraultza egin behar dugu»), sozial-inperialismoak eskuz-esku lan egin zuen hamabost bat urtez fazistekin. Baina ez zuen ikastola apurtu. Bai zauritu, ordea. Bi aldiz harrigarri; fazismoak 30 urte luze hartan eraiki eta erabilitako «escuela nacional» delakoetan, fazismoa eta «voluntak de imperio» predikatuak izan arren, ez gobernuak (jakina!) eta ez sozial-inperialistek kontra egiteko beharrik baitzuten ikusi...

*Herriaren eskola* aurrera atera zen. Zalantza guztien gainetik, bere poltsiku ahulaz ordaindu zuen herri xeheak. Eta eragozpen guztien gainetik, andereño gazteek, «Escuela Nacional» delakoen bide errazetik joan beharrean, beren burua ikastolari eskaini zioten.

Rikardo Arregik abiarazia, bestalde, beste kultur mugimendu garrantzitsu bat jaio zen Euskal Herrian urte haietan: *Euskalduntze-alfabetatze* taldeena.

Euskaldunak betidanik erdaraz eskolaturik, ez-ikasiak, are analfabetoak ere, izan dira euskaraz. Eta Brasil-go eta bestetango urraspideak jarraituz, adinekoen «alfabetatzea» pentsatu zen; herriz herri kultur-taldeak eratuz.

Ikastolak baino izkutuagoak izanik, nekez jarrai dai-teke talde hauen hazkundera; haserako urte haietan (1962-1968) batez ere.

Ondoko lerroetan ikusiko denez, ongi sustraitu ziren; eta mugimendu euskaltzalearen oinarrian egon dira du-darik gabe, ikastolen aldeko batzordeekin eskuz esku zi-hoazelarik.

## *Euskara Batuaren abiada.*

Arantzazu (1956) eta Bilbo (1958)-ko biltzarretan *euskara batzeko eta osatzeko* kezka eta beharra oso garbi agertu baziren ere, katakunbetatik irten eta herabe moitzen zen Euskaltzaindiak ez zuen arazo hura zinez bultzatzeko adina ausardiarik. (Herabetasun hori zela-ta, bizpahiru demisio gertatu ziren euskaltzaindiaren barruan; baina Lojendio, orduko lehendakariak, Euskara Batuaren prozesua abiatzea agindu zien, demisioa ez onartuz).

Baionan sortu berria (1962) zen «Euskal Idazkaritza»k, Euskara Batuaren oinarri batzu *proposatzen hasteko* erabakia hartu zuen. Lapurdin bizi ziren Hegoaldeko euskaltzale batzuk batetik (ETA-koak eta PNV-koak), eta Iparreko beste euskaltzale batzuk bestetik (Enbatakoren bat eta apaiz batzu) astero bildu ziren Baionako «Euskal Idazkaritza»ra 1963-1964 urtean. Ortografia eta Deklinabidea aztertu zituzten; eta, talde gisa prestatu zituzten txostenak oro, Ipar eta Hegoaldeko 150 bat euskaltzaleri banatu zitzaizkien; beren irizpideak, Baionara bidaltzeko eskatuz. (Erantzun asko jaso zen, Mitxelenaren batzu barne). Urteko lana bukatu zenean, Biltzar berezi bat antolatu zen Baionan (1964-ko udan). Eta, denen iritzia gurutzatu ondoren, onarturik gelditu ziren puntuak Euskaltzaindiari *proposatu zitzaizkion*. («Jakin» taldeak eta «Euskal Idazleen Elkarteak» berehalatik eman zituzten aintzakotzat)

Handik lau urtetara, 1968-an, Euskara Batuaren biltzarrak Euskaltzaindiak Arantzazun ospatu zuenean, Baionako proposamenak kontutan hartuak izan ziren (Mitxelenak prestatutako Txostenean irakur daitekeen bezala). *Euskara Batuaren abiadura* berria, beraz, *frankismo betean* gertatu zen; gazte-jendeak bultzatzen zuelarik.

## *Idazle berrien sarrera*

Arestian «Euskal Idazleen elkarte» aipatu dugu. Asmo zaharra, behin ere ez sendoki eraikia; baina, hain zuzen ere, Baionako eta Arantzazuko biltzarren arteko urteetan, nolabait bederen antolatua; eta helburu nagusi bat gidari: Euskara Batua aitzinaraztea.

Haseratik beretik ia osoki ezker abertzale gaztek osatua, «Euskal Idazleen Elkarte» belaun berriaren elkarte zen, nahiz kontradizioz ongi hornitua. Aski da «Ermuako Zina» sinatu zuten idazleen lerrokada begiratzea. Eta horrela sortu zen «Batasunaren Kutxa», Aresti-ren bulzaldi pertsonal batez...

Baina ondoko urteetan plazaratu ziren idazle-izen berriak gehienak, talde haren inguruan ibiliak ziren. Jadanik ezagunak ziren Kruttwig eta Gandiagaz gain, gazteago batzu agertu ziren euskal letretan: Txillardegi, Aresti, Pellen, J. Azurmendi, Davant, M. Lasa, Saizarbitoria, Lete, Rikardo Arregi. (Azkeneko hau, zoritxarrez gazterik hila, urte haietako kezken eta arazoek lekuko eta eragile batera).

Eta dena aldatu zen euskal literaturan, gaiaren eta moldearen aldetik batera. Nobela, olerkia, antzerkia, errotik aldatu ziren. Etsistentzialismoa eta sozialismoa agertu ziren gure liburuetan; eta saiakerak loraldi harrigarri bat ezagutu zuen. Liburu sail osoak sortu ziren, ondoko pasartean ikusiko dugunez.

Eta gerra aurreko euskal mundua gainditua izan zen; soziologiaren mailan ere, bistan denez, gainditua zen bezalaxe.

Euskal literaturaren eguneraketa hau, frankismo batean mamitua, oso inportantea izan zen.

## *Euskal teatro herrikoiaaren pizkundea*

Geroztik dexente hebaildu bada ere, 1955-1965 urteetan benetako ugalketa ezagutu zuten herri-antzerki-taldeek.

Herrika antolatuak, bai Hegoaldean bai Iparraldean, herri askotan eratu zen bertako teatro-multzoa (berrogei bat guztira).

Iparraldeari gagozkiolarik, Lartzabal eta Montzonen eraginez, halako entzute ona lortua zeukaten Hazparne, Irisarri, Arboti, eta, batez ere, Heleta-ko taldeek (Baxenabarren hau); eta herriz herri kultur-lan gaitza egin zuten. Hain zuzen ere, egun hauetan (1982-III) ospatuko da Heletan, Iparraldeko antzerkilariek antolatua, Montzon-en omenezko jai handi bat. Antzerki-talde hauen sorrera, «Enbata» erakunde abertzalearena, eta «Club du Disque Basque» eta «Goiztiri»rena bateratsu gertatzea (1961-1963 inguruan), oso adierazgarria da. Euskal kontzientzia hasia zen esnatzen Iparraldean.

Hegoaldean, jakina, beste modu batez presentatzen zen eginkizuna. Gobernuaren debekuak (teatroa euskaraz egiten zelako) ugaldtu egin ziren 1960 baino lehenago: gogoan har, esate baterako, Bilbo-ko «Txinpartak» taldeak ezagutu zituenak. Baina Donostia-ko «Escuela de Declamación» taldeaz kanpo, «aide berriak» nahi zituzten 1960 inguruan euskal teatroa egiten zuten taldeek; batez ere, erdi isilka eta gazte jendearen indarrez, perretxikuak bezala hedatu ziren antzerki-talde berriek.

Ezer gutxi zegoen euskaraz, jakina. Gerra aurretik heldua zen apurra (Toribio Alzaga batez ere) ez zen «berri-zaleen» gogokoa. Eta «Europa-ko teatro lan»en itzulketa hasi zen: Brecht, eta abar. Donostia-ko «Jarrai» taldeak bultzatzen zuen berrikuntza, gaietan eta moldeetan. Eta



gerra aurreko baserri-kutsuko antzerki apal<sup>h</sup>hura, gaindituz joan zen. Orain kaletar gazteek eskatzen zuten euskal teatroa, eta ez baserritar zaharrek. Sail honetan ere, beraz, oso nabarmena izan zen belaun berriaren sarrera.

### *Euskal kanta berria*

Frankismoaren garaiko abertzaletasunaren pizkundean, eta ezkertar abertzaletasunaren pizkundean bereziki, garrantzi handia izan du euskal kanta berriak.

1960-1975 urteetan (geroztik askoz ere gutxiago), bat egin zuen euskaldun herriak bere kantari berriekin; eta M. Laboa, X. Lete, B. Lertxundi, L. Iriondo, M. Idirin, eta beste, benetako eragile eta sinbolo bihurtu ziren.

Hots, kanta abertzale berria, osoki euskaraz emana, urte hauetantxe mamitu zen, beste ekintza guztiak bezala. Nahiz euskal kanta abertzaleari dudarik gabe PNV-ko sortzaileek hasera eman mendearen haseran (Kirikiño, Arana-Goiri bera), gerra ondoren haria etena zen: euskaraz kantatzekotan «betiko» kanta zaharrak kantatu behar bide ziren. Are gehiago: Irlanda-ko bidetik abiatu, harrigarriro, Bilbo aldean are beldurtzeko moduan zabaldu ziren españolezko kanta «separatistak»; euskal kanta bera arriskutan jarritz. (Erdal kanta «progrea» gure artean zabaltzeko gogoia ez da amaitu, bestalde)

Euskal kantaren fenomenoak, Iparraldean eta Hegoaldean mamitu zen batera.

«Enbata» sortzearekin batera, Ximun Haran pilotariak «Club du Disque Basque» delakoa sortu zuen Baionan 1961-an; baina kanta zaharrari heda-bide berriak irekitzerakoan batez ere: Iparraldeko kanta ezagunak, Zuberoakoak bereziki. Baina 1962-an, eta Baionan bertan, «Goiz-



tiri» disketxea zabaltzerakoan, kanta *berria* ezagutarazteko sortu zen; eta haseratik beretik, sekulako arrakesta izan zuten Beskoitze-ko Robles Arangiz anaiek («So-roak»), baita oso bereziki Kanbo-ko alkate zen Michel Labéguerie osagileak (handik urte batzutara, Deputatu hautatua). Honen «Haurtxo, haurtxoa», «Gu gira Euskadiko gazteri berria», «Ene gatua Pitxitxi», «Nafarroa», eta beste hamaika, tximistaren habailan herrikoitu ziren 1963-an Ipar eta Hegoaldean; eta ia bapatean, abertzale gazteen idolo bihurtu zen Labeguerie. Haren ondotik Ipar-tar kantari mordo bat jarraitu zitzaion: Etxamendi-Larralde, Pagola, Sarasola, Peio-Pantxoak. Herrietan zehar emandako kantaldien lerrokada antolatzea, ezinezkoa litzateke. Are zailagoa, era berean, Hegoaldera joatea behin eta berriz debekaturik, Iparraldeko kantariak galdu zuten kantaldien zerrenda. Baina abiada emana zen. Eta aspaldidanik dira ezagunak eta maitatuak, gure herri osoan, Peio-Pantxoak, eta gainerakoak.

Nemesio Etxanizek 1951-an argitaratutako liburua («Kanta Kantari») berehalako oihartzunik gabe ahaztu bide zen; eta Don Nemesiok berak, «amodiozko gaiak» erabiliz, entzun arazi zituen kantasaiok, ez ziren denen gustokoak izan; zenbaiti lotsagarri ere gertatu baitzitzaizkion.

Handik hamar bat urtetara, ordea, aldatzen hasia zen giroa. Eta 1963 inguruan Mikel Laboak («Bereterretxeren khantorea» hastean) eta Lurdes Iriondok (haurkatak) ezagutarazi zituztenean, harrotu egin zituzten bazterrak. Gazte-jende abertzaleak huraxe nahi bide zuen.

1966-an beste izari bat hartu zuen mogimenduak, Artze-ren eraginez, «Ez dok hamairu» taldea agertzean. Frankistek ere ikusi zuten (bi urtez euskal kanta berria debekaturik Oltra Moltó gobernariaren garaian), «Kanta

abertzale batzuk daramaten borrokarekin» lotzen zen, Lete-ren beraren hitzez esateko. Garbikiago esanda: *ETA-k zeraman borrokarekin*. Eta organizazio honekin batera azkartu zen ondoko urteetan, ahuldu ere egin zen bezala.

## EUSKAL KULTURAREN LORALDIA: 1968-1975

1968: «Mai français»... «Praha»...

Urte garrantzitsua Europaren Kondairan.

Haren ondoko olatu sakon izkutuak (ideien mailako munduan bakarrik gailen), politikaren mailan eta populuen jokabideetan oraindik ez mamiturik, ez baititu bere erasorik bortitzenak igorri. 1968-ko Maiatzean Paris-ko kaleetan barrena ibili ziren bandera beltz haiek mezu sakona zekarten: sozialismo burokratikoaren porrota adierazi zuten, eta ezker berri baten beharra. Baina projektua, ezkertarren artean nahasian bederen hedatu bada ere, 1968 aurreko erreflexuak ez dira agortu. Euskal ezkerraren alorrean, bereziki, ahaztu egin bide da urte hartan entzun zen mezua; eta ideia berriak, oraingoz, oinarri soziologikorik gabe daude.

Kuntze-urtea dugu 1968 Euskal Herrian.

Txabi Etxebarrieta... Meliton Manzanas... Borroka harmatuaren sinboloa batetik, polizi-torturaren sinboloa bestetik. Biak hilak. Eta borroka harmatuaren soka etena, birlotu egin zen.

Berrogei-ta-hamar urte latzen ondoren (1830-1880), euskal borroka harmatu eta etengabearen katea hautsi

zuen PNV-k: euskal burujabetasuna berriro lortzeko, «negoziaketa politikoa» proposatu zuen. Han-artean euskaldun foruzaleen artean estrategia ezezaguna. Foruak ez baitziren negoziaketan galdu; eta Zumalakarregi, Lizarraga, Santakruz, eta gainerako euskaldun karlista buruzagiek, ez baitzuten sekula pentsatu Foruari zegokion burujabetasuna elkarrizketa abilen bidez lortzea. (Madrillek ere ez, jakina, gure askatasuna eta eskubideak erauzteko deliberoa hartu zuenean).

Nazioen askakuntzaren azterketak ere ez zuen strategi horretara bultzatzen, egia esan: ez 1893-an Arana-Goirik Alderdia antolatu zuenean, ez geroko urteetan ere. Eta haserako zenbait abertzaleren izkribuetan ikus daitekeenez *Gallastegi* izan daiteke erreferentzia bat, jakina. Baina *Telesforo Montzon*-en biografia —«pour les besoins de la cause» osoki okertua eta gezurreztatua— izan daiteke Euskal Herriaren borroka zaharraren zantzu garbia. Aski da «Gudarien egiñak» olerki-liburu gogorra irakurtzea, 1947-an atzerrian idatzia, «Jagi-jagi»tarren eta ETA-ren estrategia gogorrak, bere sustraiak gure Kondairan oso urruti dituela ikusteko. Eta estrategia berria, elizkoikeriarekin sinetsi ezinezko moduan (oso modu españolean, bestalde) lotuta, PNV-k ekarri duela ulertzeko. ETA-k ez zuen estrategia *berritu*; PNV-ra artekoarekin *lotura egin* baizik.

Manzanas-en hilketak, jakina, «estado de excepción» ekarri zuen (saileko lehenengoa bakarrik); 1839-az geroztik Euskal Herrian dagoen bortxakeri oinarria agerreraziz. Eta euskal kulturaren kontrako kolpeak ez ziren luzatu. Hauen guztien lerrokada egitea luzeegia litzateke. Zaila ere bai; urte haietako zanpaketa aipatu ere ez baitzen egin, normalean, are ofizialki ere, «estado de excepción»ean bizi izan baitzen Hego Euskal herria. Iparraldea ere bai

hein batez, 1963-an errefuxiatuen bidalketak, eta 1969-an gose-opor orokorrak, hasi eta ugalduz joan zirelarik.

Baina etsenplu batzu emango ditugu:

Araban, Gasteiz-en, 1973-an bertako Ikastolak agindu hau jaso zuen Gobernutik: aurrean jarrita zeukan «Ikastola» letreroa kentzeko...

Eratsun-en, Nafarroan, 1969 aldean, bertako maisu erdaldunaren kasua jakin zen: euskaraz hitz egiten zuten haurrei mihiaren azpitik konpasaren punta sartzen zien....

Iruñean, 1966 (Irailean): «Université d'Etudes Basques et européennes» erakundearen biltzarrak, bapatean debekaturik...

Eugi (Nafarroan): herria oraindik ere euskalduna izanik, 1942-1971 apez erdaldunen eskuetan egon dela salatu zuten nafartar euskaltzaleek (1971-an).

Iparaldean (1972): «Il n'y a pas de place pour les langues et les cultures régionales dans une France destinée à marquer l'Europe de son sceau» (1972, Pompidou).

Euskal diskoa, euskal kantaldiak, euskal teatroa, euskal prentsa (Jakin, esate baterako, 1969-an bigarren aldiz debekatua), euskal kultura osoa jartzen da zigorpean. Ez oso nabarmenkiro, halere; fazismoak ez baitu nahi abertzale jende guztia, kultur zapalkuntza itsusia dela-ta, ETA-ren alde jartzerik. Borroka gogortu ala, euskal kultura «gaitzik txikiena» bihurtzen da. Ezin zanpatze honek, horretara, euskal kulturaren loraldi gaitza dakar; borroka harmatuan parte hartzen ez dutenek, hemendik edo handik Euskal Herriaren alde «zerbait» egiteko premia ikusten dutelako.

Euskal Herria eskualde txikia da, eta jendaketaz ere

urria. Normala da, beraz, organizazio harmatuaren ekin-  
tzek herri osoa ikutzea.

### *Ideologi nahasketak*

Garai «normaletan» politikaren sailean *oportunismoa* baldin bada arrisku nagusia (orain, esate baterako), «normal» ez diren garaietan (frankismoaren garaian, esate baterako) politika militantismo bihurtzen da, multzo txikitik jakina; eta, dena edo gehiena gerorako proiektu denez gero, ideologiak indar handia hartzen du. Teorizaleen garaia da; teologoena ere bai gure herrian.

Eta 1967-1977 urteetan euskal politikak (euskal ezker-tar politikak, hobeki esateko, euskal eskubiak ez baitzuen ezer egiten eta ez projektatzen) izugarritzko inflazioa ezagutu zuen ideologiaren alorrean. Baina Europan gertatu denaz bestalde, euskal ezkerak 1900 *inguruko* giro ideologikoa ezagutu zuen, 1968 *ondokoa ezagutu beharrean*. Gaingitu ezinezko anakronismorako joera hau, beste autorek ere salatu izan dute: karlismoa edonon suntsitua denean ere, Nafarroan indar nagusi agertzen; Erdi-Aroko teatroa nonahi amaitu denean, «Pastorala» bizirik dago Zuberoan; eta abar. Gauza bera politikaren alorrean.

Baina bil gaitzen hemen ideologiaren borrokara.

1967 inguruan Euskal Herrian mamitu zen ideia-krisialdi nagusia azaltzeko, arrazoi batzu aurkitzen dira, denak batera eragile:

Frankismoaren garaian *euskal kapitalismoak* ezagutu zuen hazkuntza izugarria. Fazismoak eskaini zituen baldintza sozialak baliatuz (sindikatorik ez, erakunde politikorik ez, prentsa «bakarra»: «Movimiento»arena, etab.),



euskal burgesiak sekulako negoziokoak egin zituen. Noren lepora? Langileen lepora, jakina. Eta Elizaren bedeinkazioarekin (behereko euskal apaizen kritikek ez zuten Vaticano-tik zetorren politika-bidea aldatu).

Honek, beraz, ondorio hau ekarri zuen: *fazismoaren, Elizaren eta kapitalismoaren* kontrako joera orokor eta azkar bat Euskal Herrian. Euskal ezkerren beharra senditu zen lehenengo aldiz. Eta PNV-k arazo hauetan ez baitzuen txintik atera, edo hor nonbait, multzo politikoe-tan *PNV-ren kontrako gorrotoa* sortu zen.

Krisiak bazter guztiak asaldatu zituen: Derio-ko Apezgaitegien arazoa (1966), eta «Gogor» taldearen jaiotza; ETA-ren erdibiketa: ETA eta EMK, funtsean («Branka») aldizkariaren inguruan bildu zen taldea kondatu gabe); eta abar.

Etorkinen sarrera azkartu egin zen; eta Bizkaiak aspaldidanik ezagutzen zuen fenomeno, beste probintzietara ere zabaldu zen. Hona hemen 1961-1970 urteetan barrena, España-tik etorritako inmigrazioari dagozkion zifra batzu:

Arabara .....	25.377 etorkin
Bizkaira .....	113.193
Gipuzkoara .....	47.930
Nafarroara .....	13.553

Euskal Herria aldatu egin zen. Alde batetik, *kaletartu* egin zen: baserriak askotan hustu, eta gure herri handien inguruko barrideak agertu ziren. Bestetik, berriz, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, *etorkinen pisua* azkartu egin zen, eta gero «dos comunidades» delakoan teoriak erabiltzeko oinarri jarri. Francok pozik ikusi zuen soziologi aldaketa hau (Stalinekin lehenago Karelian eta Letonian erabilia), euskara eta euskal nazioa itotzeko asmotan; eta eus-

kal burgesiak ere begi onez ikusi zuen, negozioak egiteko tresna zelako. Euskal Herriko langileriaren arazoa «beste modu batez» presentatzeko beharra gauza agiria zen; eta sozialinperialismoak ez zuen parada galdu...

Jadanik aipatua dugu Derio-ko krisialdia. Gauza bera gertatu zen beste Apaizgaitegietan ere: «desagertu dira gazte jendez betetako seminario haiek», dio Jakin-ek. Eta egia da: seminarioak *hustu* egin ziren 1967-1977 hamarkadan.

Baina seminariotik aldegin zuten apezgaiek (baita apez berri batzuk ere, laiko bihurtzerakoan) *politika saila* hartu zuten borroka-lekutzat; eta, psikologian ongi ezagutzen den mekanismo bategatik, «ezkerrera» jo zuten. Eta Jesus-en ordeztu Marx jarri zuten (oso adierazgarria da 1975-an «Marx eta Jesus Europan» deritzon liburu bat agertzea).

Langileen eta sindikalisten eskutik ez-baina seminarioa utzi berria zuten apez «*défroqué*» horien bidez (izenik ez ematea hobe: aski du irakurleak mogimenduen buruzagiak gogoraztea), 1917 baino lehenagoko *marxismo ideologikoa* zabaldu zen; benetako eskolastika berri bihurtu arte. Eta nazio-arazoa izan zuten autoreak ez ezaguturik («austro-marxistak», esate baterako), marxismoa *elizgizonen eta sozial-imperialisten eskuetatik* sartu zen Euskal Herrian. Eta nagusitu egin zen: «marxismoa nagusitu, benetan nagusitu, eta bere aurretik beste uhin ideologikorik ez bezala, 68 ondoan egin da Euskal Herrian», dio Azurmendik.

Marx-en ideien zabalketa hori, jakina, *normala* zen, batetik; eta *onuragarria* ere bai, bestetik, bai zientziaren aldetik, bai euskal ezkerre eraikitzekeo behar zen ideologi-oinarrien aldetik. Baina, horrez gain, *mesianismo* kutsu nabarmenez ere horniturik sartu zen; eta, jakina, nazio-

-arazoaren funtsa ia osoki ukaturik.

Problematika eta giro horren lekuko aparta Rikardo Arregi izan zen; beti argitzaile zorrotza izan ez bazen ere.

## *Euskal liburugintza*

Abertzaletasuna ikaragarri azkarturik ere, isilpeko taldeetan «azaldu» eta «interpretatu» nahi zuten intelektual-taldetxoek ez zuten beti zerbitzatu. Freinatu, zatitu eta desbideratu, berriz, bai; eta behin eta berriz. Abertzale jendea erotuta bezala zebilen, orduko lekuko guztiek ahobatez diotenez. ETA-ren goranzkoan, eta kantaldien arraketa hazkorrean, garbi agertzen baitzen euskal sendimendua gora zihoala ezin azkarkiago; eta abertzaletasuna ere bai.

Euskal liburugintzan agertzen da ongienik.

Hona hemen euskal liburuen *argitaletxeen jaiotza*:

- 1968: Gordailu
- 1969: Lur
- 1970: Irakur Saila, Etor, Jakin
- 1972: Iker
- 1973: Gero, Elkar
- 1974: Kardaberatz
- 1975: Kriselu, Idatz, Artezi, L. Zugaza
- 1976: Geu, Erein

Herriaren erantzuna soma daiteke: nola bizi horrenbeste argitaletxe? Euskaldunik gehienak analfabetoak ziren orduan, eta 600.000 baizik ez ziren... Militantismoa bilatu behar, jakina.

1975-an 165 euskal liburu argitara ziren. Horra hor

hazkundearen neurri bat (zortzi aldiz gehiago 1960 inguruan baino). Gaien saila ere zabalago.

Problematikaren eragina, nabarmena da: «Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa», «Komunista Alderdiaren Agiria», «Afrikar iraultzaren alde», «Marxen marxismoa», «Soziologiaren hastapenak», «Iraultzaren hildotik», «Iraultzaz», «Kooperatibak», etab... Kristau ebanjelioak eta baserri-kutsuko gaiak gaituta daude. Nuñez-ek ematen dituen datu hauen arauera ere ondo ikus daitekeenez:

	1962-1963	1972-1973
Saiakera	% 2,4	% 36,6
Erlijioa	% 16,6	% 3,0

Eta Durango-ko Liburu-Azoka, 1964-an sortua, azkartuz doa: gero eta euskal liburu gehiago argitaratzen eta saltzen.

Literatura, dena dela, beherantz doa urte horietan. Belaun berriko idazlerik famatuenean, 1968 inguruko krisialdi ideologikoa baino lehenago eman zituzten beren lanik ospatsuenak.

## *Ikastola*

Ideologiaren borroka latzak ikastola ere iritsi zuen. Alde batetik, guraso batzu kezkatu ziren: ikastola «gorriegia» ote zen. Bestetik, sozialinperialistek abertzaletasuna eta euskara bera likidatu nahi («ez da langileria gauza horiengatik zatitu behar»), ikastola «burgesa» omen zen...

Mogimendua gora joan zen halere:

	1964-65	1970-71	1974-75
Araba	22	334	1.200 ikasle
Bizkaia	54	2.591	7.800
Gipuzkoa	520	8.181	20.000
Nafarroa		765	2.000
Iparraldea		47	305
<hr/>			
Guztira	596	11.918	31.305 ikasle

Ikastola «burguesa» omen zen; baina gurasoen seme-alabez eta poltsikuez hornitu zen urte haietan. Hots, orain dakigunez, eta SIADECO-k frogatu duenez, hauxe da gurasoen lanbide-zatiketa:

%Langile trebatuak .....	32,4
Bulegariak .....	18,7
Tarteko agintariak .....	12,4
Merkatari txikiak .....	10,9
Langile soilak .....	10,9
Arrantzaleak .....	3,9

Burgeskume gutxi, hortaz, ikastoletan...

Baserritar gutxi ere bai, bidenabar...

Baina gataska ideologikoa gogorra izan zen; eta ikastolaren «burgeskeria» dela-ta-ez dela, dexente nardarazi ziren bazterrak. Nahiz Freinet, eta batere eskuindar jo ezin daitezkeen beste pedagogo batzu, ikastolaren gidari hartu.

Soldatak oso apalak ziren, bestalde; eta andereñoek (eta irakasleek) «Seguridad Social»-ik ez zuten.

Eutsi egin zitzaion, halere. Eta zinez egin ditzakegu geure Martin Ugalde-ren hitzak: «la ikastola ha sido un esfuerzo colectivo *sin precedentes* en la Historia del país».

Orduan, eta gero eta gehiago (Galos-en bezalaxe, bestalde) ikastola *kale-fenomenoa* da. Baina kalea erdaldun-



duta egonik, traba berriak sortu ditu izari honek.

*Alfabetatze-Euskalduntze* mogimendua ere aurrera joan zen; jende heldua *milaka* eskolatzen zelarik lan-orduetatik kanpora. Bai Hegoaldean bai Iparraldean.

### *Euskal kanta berria*

Zanpaketa azkartu-ala (lau «estado de excepción» ofizialki, fazismoa aski ez bailitzan), kantaldiak bihurtu ziren geroko mitin politikoak. Kantaldi bakoitza abertzaletasunaren aldeko festa gaitza zen. Eta kantariek, lehertu arte, Euskal Herriko zoko guztiak kurritu zituzten. Kantaren mogimendu «abertzalego osoak onarturiko eta garrantzitsutzat kontsideraturiko mogimendua izan zen», dio Lete kantariak.

Ideologi borroka kantaren sailean ere agertu zen: «Ez dok hamairu» vs. «Oskorbi»

Aurreko urteetako kantariei, berriak erantsi zitzaizkien: Gorka Knorr (1971) izan daiteke txalotuenetako bat. Baita beste pilo bat ere: Niko Etxart, Eiherabide, Martinkorena, Artola, Mendibil, Lupe, Urko...

*Euskal Unibertsitatearen hazia* 1974 inguruan erein zen.

Alde batetik, «*Elhuyar*» taldea sortu zen, eta helburu bakartzat hau hartu zuen: euskara zientzietarako mintzabide zorrotz bihurtzea. Talde-lana eginez (Zalbide, Banderes, Etxebarria, Iturbe, Sagarna, Azkune), eta aldizkari apal bat argitaratuz, «*Elhuyar*» izan da Udako Euskal

Unibertsitatearen eta UZEI-ren pilareetako bat. (Bigarrena «Jakin» taldea izan da: Intxausti, Agirrebaltzategi, Azurmendi, Torrealdei, etab.)

Beste alde batetik, Iparraldean eta Donibanen lehenengo aldietan biltzen zelarik, *Udako Euskal Unibertsitatea* sortu zen. Kultur ekintza hau, aurreko guztiak bezalaxe, belaun berriak bideratu du, inolako laguntzarik gabe (laguntza funtsezkorik, alegia). Martin Orbe izan du gaur arte sustatzaile suhartzat. Eta Unibertsitate mailan euskara sartu eta euskaltzaleak elkarrekiko harremanetan jartzeaz gainera, modu merkean (dirurik ezarengatik) berrehun bat liburu argitara ditu, Zientzi, Filosofi eta Soziologi gaiez.



## INSTITUZIO BERRIETAN BARRENA ETA INSTITUZIOETATIK KANPO BATERA

Kapitulu honetaz gogoratu behar da, bilakaera orokorrean ez baina zenbait datutan ordutik hona gauzak aldatu bait dira, liburu hau 82.-aren haseran idatzia dela. Autoreak orain, zegoenean uztea nahiago izan du. (Argitaletxearen oharra).

*Barruan eta kanpoan batera, bai. 1975-an hasi zen prozesuak ez baitu ezer ekarri Nafarroan eta ez Iparraldean. «Vascongadismo»an ez erortzekotan, beraz, Euskal Herriaren parte handi bat, handiena Historiaz eta Lurralde-zabaleraz, 1975 bezala dago. Eta euskarak ez du ezelako estatuturik.*

*Ideologiaren arazoak bigarren mailara pasa dira erabat. Eta saiakera politikoa, Azurmendik azpimarratu duenez, hil dela pentsa liteke... Orain oportunistoa nagusi. Eta kezka nagusia, hau: Erreformen sartu, ala ez sartu? 1975-az geroztik gertatutako frustrazioak direla-ta, pasotismoa gora: «Zertarako muturrak hautsiko? Horretarako?»*

1970 inguruko giro militante hura, erabat suntsitu dela esan behar litzateke. Eta kultur munduan oso nabarmen agertzen dela aldakuntza.

*Ikastola* aurrera joan da; baina Mendebaldeko hiru probintzietan, «Gasteiz-tik pasa ala ez pasa» zalantzak, zatitu egin du hararteko gogoia. Hona hemen zifra batzu:

	1974-75	1978-79
Araba	1.200	3.500 ikasle
Bizkaia	7.800	14.920
Gipuzkoa	20.000	30.356
Nafarroa	2.000	3.744
Iparraldea	305	433
<hr/>		
Guztira:	31.305	52.953 ikasle

Iparraldean, Miterrand-en etorrera dela bide, saialdi berri bat egiten ari da «Seaska»-elkartea, finantzabide publikoa lortzeko.

Oso arazo antzekoak ditu «*Alfabetatze-Euskalduntze*» mogimenduak. Orain dela urte batzutara arte, zifrak gora zihozten:

Araba	1547 ikasle (heldu)
Bizkaia	12.144
Nafarroa	3.358
Iparraldea	200
<hr/>	
Guztira (1977)	28.793 ikasle

A.E.K.-k arrakesta handia lortua zuen; nahiz diruz urri ibili. Orain Gasteiz-en H.A.B.E. sortua dela-ta, arriskutan jarri da mogimendua. Nafarroan eta Iparraldean HABE-k ez dauka zer eginik. AEK-ko militante asko, berriz, ezker abertzale gogorrekoak izanik, «Gasteiz-ko leihatilatik pasa nahi ez»; eta AEK-HABE bikotea zertan geldituko den ezin esan.

AEK-ko jendea gaztea da (% 78,2 hogeita-hamar urtetik beherakoak); eta kanpotarren artean sartzen hasia da (% 10,2).

*Euskal liburugintza* aurrera joan da, zifretan. Baina bai literatura hutsa, bai saiakera, izugarri jaitsi dira.

Hazkunde honetan, hortaz:

	1975	1980
Euskal liburu	165	223

Euskal *testuak* nagusitu direla hartu behar da kontutan. Gaurko argitaraketak, ikastola, are eskola elebiduna, ditu helburutzat.



*Elebitasunezko Dekretua* dela-ta («Vascongadetan») euskara sartzen hasia da ikastola ez ziren eskola «nazionaletan». Baina nekez eman daiteke iritzi sendorik Dekretuaren aplikazioaz. (Ikastolek, bestalde, ez dute behin ere bildu Euskal Herriko ikasle guztien % 10a edo 12a baizik).

Administrazioan betiko diskriminazioa dago: euskara ez da postu-betebeharra; eta proposatu izan denean, espainatar gobernaria, baita «Eusko Jaurlaritza»ren gaitetik, ezeztatu izan du izendapena.

1976-ko Martxoaren 27-an, sinbolo gisa, «24 ordu euskaraz» egin zen Donostiako Herri-Irratian. Franco hilberria zen orduan, eta berotasun izugarria esnatu zuen gertakariak. Geroaren irudia ote zen?

Aurten (1982) Franco hil zenez geroztikako *zazpi* urteak beteko dira. Telebista, bai Iparraldean bai Hegoaldean, erdara hutsez egiten da.

Irratiari dagokionez, ezer ez da aldatu Iparraldeko irratia ofizialetan. Abertzale batzuren eraginarengatik, euskara



sartu da bi irrati pribatutan (Miterrand-en arrimuan sortuak). Besterik ez.

Nafarroan ezer gutxi aldatu da («Radio Requeté»ko euskara kenduta; eta apur hau ere, lehenagotik lortua).

Vascongadetan aurrerapausu batzu egin dira azkeneko hilabeteetan «Herri-Irratian» eta «Radio San Sebastián»en. Hauetan egunean ordu batzutan barrena entzun daiteke gaur euskara.

Erdal presioa, beraz, ezer gutxi txikitu da.

*Euskal prentsak* mementu latzak pasa ditu 1981-an barrena. «Argia» eta «Anaitasuna» hilabete luzetan barrena egon dira atera gabe. Azkenean instituzioetatik lortu den laguntzari esker jarraitu ahal izango da. Baina aldizkariok Erreformaren aldeko ez izanik, traba gaitzak dituzte dirua lortzeko. «Oh! Euzkadi» aurrera doa, aldizka ateratzen delarik. Eta Baionako «Herria» ere bai, asteka. «Egun» euskal egunkaria argitaratzeko asmoa ez da oraingoz mamitu. Bitartean, «Vascongadetan», eta hauetatik at, erdara hutsez agertzen da eguneroko prentsa; edo-ta, gehienez, «Deia», «egin» edo «p. hora»ri dagozkien %5 edo %10-rekin. Prentsak, beraz, ia betiko presio berbera egiten du euskararen kontra.

1977-ko udan, *U.Z.E.I.* delakoa sortu zen Donostian (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikasketxea). Izenak berak adierazten duenez, *Euskal Unibertsitatearen zerbitzutan* jartzekotan eratu zen. Diru-iturria pribatua zen, eta urria. Bultzatzaileak: «Jakín» eta «Elhuyar» taldeak.

UZEI-ren asmoa hau zen: gure hizkuntza Unibertsitate mailan sartzeko behar zuen osakuntza profesionalizatu, behar ziren pertsona ikasiak horretara jarritz.

Hiztegi berezituak bana-bana prestatzen eta argitara

tzen hasteko planari heldu zitzaion: Matematika, Fisika, Ekonomia, Psikologia, Hizkuntzalaritza, Literatura, etab. Hiztegi bakoitzean «Zuzendari» (gaiari buruz) eta «Zuzentzaile» izango ziren pertsonak hautatu ziren; eta ahalik eta gehienik zabaldu zen Hiztegi bakoitzeko laguntzailetaldea. Horretara, 450 bat euskaltzalek hartu dute parte gaur arte UZEI-ren hiztegitintzan; eta lehenengo bostak atera dira.

Funtsean zer dagoen ongi ikusten ez delarik, indar erreformistek, Mitxelenaren atzean izkutatuturik, sekulako eraso bota dute UZEI-ren kontra; denbora berean, jakina, Udako Euskal Unibertsitatea, Euskara Batua, «Euskal Herrian Euskaraz» mogimendua, etab. erasotzen dituztelarik. (Azkeneko mogimendu hauek, Durangoan 1979-an sortua, diglosiaren kontra borroka egiteko helburua du. Eta, besteak beste, manifestazio gaitzak eratu ditu euskal telebista eta euskal administrazioa eskatuz).

## HIZKUNTZAREN EGOERA GAUR

Irakaskuntza erdaraz egiten da orain (baita lehenengo mailan, ikusi dugunez, % 88-tik gora egiten da Vascongadetan). Telebista erdaraz % 100-ean. Irratia % 90 edo 95-an. Prentsa beste horrenbestetsu. Administrazioa erdaraz; eta euskaraz ez dakien funtzionaririk ez onartzeko bideak, ebakita daude behin eta berriz, Madrileko edo Paris-ko arduradunen aldetik. Ikastolak eta helduen alfabetakuntza, arriskutan daude. «Eusko Jaurlaritza»ren praxia, erdalduna da erabat. Diglosia osoa da, baita indar «abertzaleen» artean ere. Eta hizkuntza bera, zertan dago.?

### *Euskaldunen kopurua (1975)*

Pedro Irizar-ek bost urte lehenago aurkitu zituen zifretatik hurbil, hona hemen SIADECO-k aurkitu duena (1975):

Araba	18.863 eusk.	% 7,9 (orot. 238262)
Bizkaia	174.366	15,1 ( " 1152394)
Gipuzkoa	307.279	45,0 ( " 682867)
Nafarroa	53.340	11,0 ( " 483867)
Iparraldea	78.453	34,5 ( " 227280)
<hr/>		
Guztira:	623.301 eusk.	% 22,7 ( " 2784320)

Ia euskaldunen *laurden batek* daki gaur euskaraz (baina orain dela ehun urte, *erdiak* baino gehiagok zekien, % 54-k).

### *Euskalkien egoera*

«Euskara Batua» ala euskalkiak, euskararen dialektuak alegia?

Literaturari begiraturaz gero, *lapurtera* da nagusi; XX mendean ongi hasia izan arte.

Ahozko *euskara mintzatuari* begiraturaz gero, berriz, eta Gipuzkoako Mendebaldean bizkaiera mota bat hitz egiten dela kontutan hartuz, hona hemen egoera:

Bizkaiera .....	% 37,7
Gipuzkera .....	37,6
Nafarrera .....	9,7
Baxenabarrera .....	8,8
Lapurtera .....	4,3
Zuberera .....	1,9

Bonaparte-ren irizpideari helduz, Gipuzkera, Nafarrera eta Lapurtera, antzekoak dira, eta Baxenabarrera eta Zuberera ere bai.

Antz horiek kontutan hartuz, beraz, hau dugu:

Erdialdeko euskara (G.A.N.L.)...	% 51,6
Mendebaldeko euskara (B.).....	37,7
Ekialdeko euskara (B.N.S.).....	10,7

Hots, Euskara Batua *Erdialdeko* hiru euskalki nagusien arauera erabaki da.

Mende honetan, bestalde, eta areago 1960-z geroztik, Gipuzkera edo Euskara Batua izan dira gehienik erabili diren euskara-motak.



Estatistikek erakutsi dutenez, bestalde, % 75 baino gehiagok onartzen du Euskaltzaindiak proposatu duen Euskara Batua. Oposiziorik handiena zaharren artean dago.

### *Euskara kaletarren mintzabidea*

Orain dela ehun urte, euskaldunik gehienak arrantzaz eta nekazaritzaz bizi ziren. Eta euskara «idioma rural» zen. *Gaur ez da baserri-hizkuntza bat.*

Udako Unibertsitatean, kaletarrak dira gehienak. «Jakin» aldizkariaren irakurleetan, % 70 dira kaletarrak. Ikastola ez dagokio baserriari, kaleari baizik. Eta ez da burgesiaren hizkera.

Elgoibar-en eta Orereta-n (Errenderi-n) 1970-an egin-dako inkestetan ongi agertu zenez (ikus Núñez, «Opre-sión y defensa», 46), «el 70 % de los euskaldunes en esos pueblos tenían ingresos bajos y el 88 % estudios única-mente primarios». (= euskara *langileen* mintzabidea da euskal lurraldeetan). Eta iritzi bera ematen du M.Ugaldek, SIADECO-ren inkesta azaltzean: «las familias vascopar-lantes o euskaldunes ocupan en la escala social posicio-nes inferiores a las de las familias no-vascoparlantes; lo cual demuestra que es *la población vascoparlante la que padece una mayor marginación*».

Egia da, bestalde, baserria izan dela euskararen min-tzaleku nagusia orain arte. Baina egia da era berean gero eta jende gutxiago bizi dela baserrian. *Gaur euskaldunik gehienak kalean* bizi dira. Eta jaiotzaz baserrian edo herri txikitan jaiotakoen artean ere, pilo bat ezkondu da kalera, eta *kaletar* bihurtu.

## *Euskaldunen kopurua gaur probintzietan barrena*

Hona hemen ilara (Pedro de Irizar, 1970):

Baxenabarre .....	% 84 euskaldun
Zuberoa .....	60
Gipuzkoa .....	44
Lapurdia .....	24
Bizkaia .....	16
Nafarroa .....	11
Araba .....	9

Baina taula honek okerbidera eraman dezake:

a) Baxenabarre Iparraldeko Nafarroa baizik ez da.

b) Zuberoan izugarria da diglosi-maila: han euskara ez da erabiltzen zaharrek eta familian baizik. (Baxenabarren gauza bertsua gertatzen da, baina ez horren nabarmenkiro).

Eta beste taula hau lortzen da (1970):

Gipuzkoa .....	276.843 euskaldun
Bizkaia .....	172.224
Nafarroa (biak) ...	78.159
Lapurdi .....	39.530
Araba .....	18.863
Zuberoa .....	11.302

## *Seme-alabak euskalduntzea nahi*

Askotan gurasoek euskaraz ez badakite ere, zer nahi lukete beren seme-alabentzat? Galdera funtsezkoa.

Erantzunak ez zu dudarik uzten. Gurasoek hau nahi lukete: bere seme-alabek euskaraz *ikastea*. Bai Euskal

Herrian jaiotako gurasoek (% 88); bai etorkinek ere (% 56). 1970-an hau.

Ondorio bertsuak SIADECO-ren inkestan: % 83 seme-alabek euskaraz ikastearen alde.

### *Euskara eskolara*

1970-k inkestan hau atera zen: Euskal Herrian jaiotakoen artean, % 86 baiezko; etorkinen artean, % 62.

Oraindik gorago 1975-ko inkestan: % 90,5 bi multzoetan, baina sartzeari buruzko diferentzia zenbaitekin.

### *Euskara administrazioara*

Herriak nahi du, dudarik gabe. Gutxienez elebitasuna ofizialtzea eta bi hizkuntzak parean jartzea nahi lukete: Euskal Herriko semeen artean, % 83,2-k; eta etorkinen artean, % 62,8-k.

Egoera, hitz batez, txarra izanik ere, *nahia ez da falta*.

Baina instituzioak ez daude gaur, eta ez ziren 1956-1975 urteetan jakina, euskararen zerbitzutan, *erdararen zerbitzutan* baizik. Eta Euskal Herriaren borondate, (zifra hauetan, eta SIADECO-k ezagutarazi dituen beste askotan ageri dena), bost axola. Euskara suntsitzea nahi dute Madrillek eta Parisek, gaur eta beti. Eta helburu hori, jakina, ez da hitzaldi larrosetan bilatu behar, eguneroko *praxi politikoan baizik*. Eta hau, zinez, bai gaur, bai Franco bizi zenean, argi eta garbi mintzo da bere buruz.

Taktikak aldatu dira, baina helburua ez.

Eta euskaldun indar «abertzaleen» artean, zoritxarrez, zampaketak sortu dituen «petit nègre»ren jokabide ustelak eta beldurkeriak ez dira amaitu.

Gauza bera Iparraldean, jakina. 1846-an (frankismoa baino lehenago...) hau agindu zuen prefetak: «Nos écoles en Pays Basque ont particulièrement pour objet de *substituer la langue française au Basque*». Eta 1977-an, prefetoak Donapaleu-ko ikastola *hetsi* zuen. Non dago diferentzia? Eta honetan berdinak dira eskuindarrak eta ezkertarrak: «L'enseignement doit être donné, dans les écoles publiques, dans la langue nationale; qui, pour nous, est le français, y compris dans notre région» (H. Lagarde, PC-ko Sekretario federala mintzo, ikastolei *laguntza ukatzeko*, 1977)

Euskal arazoa ez da kultur arazo huts bat, jakina; eta honetara bildu nahi izatea, eskuindarkeria da.

Baina euskal arazoak kultur izaria du bere muinean, eta kultur izari hori gabe, ez da euskal arazoa (gizarte-arazo bat izan badaiteke ere, nahiz ez nazio-arazoa).

Bi mutur horien arteko bide hertsia euskal iraultzaileek ongi aurkitu eta errespetatu arte, Euskal Herriak ez du gerorik izango.

Txillardegi  
Los Angeles, 1982-II-26

## BIBLIOGRAFIA

- EUSKARAREN LIBURU ZURIA - Euskaltzaindia - Bilbo, 1978.
- CONFLICTO LINGÜÍSTICO EN EUSKADI - Siadeco/Martín Ugalde  
- Ed. Ediciones Vascas, San Sebastián 1979.
- EL PROBLEMA VASCO Y SU PROFUNDA RAIZ POLITICO-CULTU-  
RAL - Martín de Ugalde - Ed. C.A.P, San Sebastián 1980.
- 25 URTE EUSKAL KULTURAN - Jakin - Ed. Jakin (21), Donostia 1981.
- PAYS BASQUE NORD: UN PEUPLE COLONISE - Manex Goyhenetche  
- Ed. Elkar, Bayonne 1979.
- OPRESION Y DEFENSA DEL EUSKERA - Luis M. Núñez - Ed. Txertoa,  
San Sebastián 1977.
- JAKIN-SORTA (Donostia)
- 1 - Euskal Unibertsitatea, 1977
  - 3 - Autonomi Estatutua
  - 4 - Euskal Kanta Berria
  - 6 - Nafarroa
  - 7 - Abertzaletasuna eta Hizkuntza: Irakaskuntza Elebiduna.
  - 10 - Ipar Euskal Herria (II)
  - 14/15 -Bertsolaritza
  - 17/18 -Araba
  - 19/20 -Elebitasunaren auzia ikastoletan.

## AURKIBIDEA

Kultura zer den. Kulturaren bi izariak .....	6
Euskal kultura zer den .....	13
Euskal kulturaren zampaketa .....	19
1956-1981 tartean, hiru aro desberdin .....	23
Belaun-trukea: 1952-1956 .....	27
Belaun berriaren plazaraketa: 1956-1968 .....	35
1956: Parise eta Arantzazu. Bi bilera giltzarri .....	39
Aldakuntzaren hastapena .....	45
Euskal kulturaren loraldia: 1968-1975 .....	59
Instituzio berrietan barrena eta instituzioetatik kanpo batera .....	71
Hizkuntzaren egoera gaur .....	77
Bibliografia .....	85